



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko otsailaren 4a

13. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, lana eta familia bateragarri egiteari dagokionez Gobernuak eta CENek, UGTK eta CCOOK adostutako laguntza ekonomikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko zenbait aurrekontu-partida ez-betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, “Iparraldeko, Pirinioetako eta Erdialdeko transferentziaguneen operazioa, mantentzea eta garraioa” kontratatzeko espedienteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroari buruzko 2018ko datu soziolinguistikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, ARS-CoV 2 detektatzeko test antigenoak erosi eta erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, ARS-CoV 2 detektatzeko hondakin-urak kontrolatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Navarra Film Commission-ekin lankidetzan gogoan hartu diren plan bereziei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, PCR probak egiteko Refena erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Foruzaingoak Irunberrin 2020ko abuztuaren 15ean egindako salaketa-buletinei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Espainiako Itzuliak Nafarroan egiten dituen bi etapetako gastu publikoari, osasun-neurriei eta euskararen erabilera bermatzeko ekimen eta jarduketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, kirol-ekitaldien babesletzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, unibertsitate-ikasketetarako 2020/21 ikasturterako beken deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako hizkuntza eskolen kontingentzia planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nastat-en galdetegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

- Galdera, transferentzia arrunten aparteko funtsa ordaintzeari buruzkoa, COVID-19ak 2020ko ekitaldiko udal aurrekontuetan duen inpaktua apaltzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Galdera, Estatuak autonomia-erkidegoetako gizarte-zerbitzuetarako duen 300 milioiko aparteko funtsari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Galdera, COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko gastuak arintzeko egoitzak finantzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
- Galdera, hondakinen arloko PIMA planetako estatu-funtsen banaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (45. or.).
- Galdera, 2017-2019 aldia dela-eta Tracasa Instrumental SL enpresari egindako fiskalizazio-txostenean adierazitako justifikatu gabeko orduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (47. or.).
- Galdera, Agoizko Siemens-Gamesaren Kanpoko Birkokatze Plana dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egiten duen jarraipenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (48. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, lana eta familia bateragarri egiteari dagokionez Gobernuak eta CENek, UGTk eta CCOOk adostutako laguntza ekonomikoei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, lana eta familia bateragarri egiteari dagokionez Gobernuak eta CENek, UGTk eta CCOOk adostutako laguntza ekonomikoei buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 24ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu —Nafarroako Parlamentuko 3626 irteera-zenbakiarekin erregistratu ziren, 2020ko ekainaren 23an (10-20/PES-00120)—, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren behean aipatutako erabakiari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

“Familia-bizitza, lan-arloko bizitza eta familia-bizitza [sic] bateragarri egiteko laguntza ekonomikoa. Esparru horretan bi neurri har litezke:

1.- Ondorengo ahaideak, aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk edo pertsona desgaituak zaintzeagatik etxeko langileak Gizarte Segurantzako kotizazioetan ordaindutako % 25eko kenkaria % 100era igotzea, 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitarteko eraginez”.

1. Gobernuak daukan informazioaren arabera, PFEZko zenbat subjektu pasibori eraginen lioke neurri horrek, ezarriko balitz?

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) 2018ko zergaldiko aitortpenen erregistroan jasota ageri denez, ondoren aipatzen direnak dira “Kenkari pertsonalak eta familiarrak. Gizarte Segurantzako kotizazioak, zaintzaileak” izeneko c1482 laukitxoan zenbateko bat jarri zen aitortpenen zenbatekoa. Laukitxo hori, izan ere, ondorengoak, aurrekoak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik kenkariari dagokio; hain zuzen ere, PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62.9.c) artikuluan araututakoari. (Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua). Guztira, 2.840 aitortpen dira.

	<b>2018</b>	
	<b>AITORPEN KOPURUA</b>	<b>Kenkariaren zenbatekoa c1482</b>
<b>Zaintzaileen Gizarte Segurantzako kotizazioak</b>	2.840	1.491.931,83

2. Gobernuak zer xehakapen egin lezake, zerga-oinarriaren tarteen arabera, neurri horren onuradunei dagokienez?

2018ko zergaldiko PFEZaren aitortpenen erregistroetan jasotakoaren arabera, hau da c1482 laukian (likidazio-oinarriaren tarteen, c550, arabera banatuta dago), zenbatekoa adierazi zen aitortpenen kopurua:

	2018	
	AITORPEN KOPURUA	Kenkariaren zenbatekoa c1482
LIKIDAZIO-OINARRIA ZERO EDO GUTXIAGO	2	863,10
LIKIDAZIO-OINARRIA 0 BAINO GEHIAGO ETA 3.000 BAINO GUTXIAGO	9	4.924,38
LIKIDAZIO-OINARRIA 3.000,01 ETA 6.000 EURO ARTEKOA	7	3.420,48
LIKIDAZIO-OINARRIA 6.000,01 ETA 12.000 EURO ARTEKOA	66	40.276,31
LIKIDAZIO-OINARRIA 12.000,01 ETA 18.000 EURO ARTEKOA	184	115.456,67
LIKIDAZIO-OINARRIA 18.000,01 ETA 24.000 EURO ARTEKOA	243	146.517,30
LIKIDAZIO-OINARRIA 24.000,01 ETA 30.000 EURO ARTEKOA	195	101.340,44
LIKIDAZIO-OINARRIA 30.000,01 ETA 45.000 EURO ARTEKOA	494	266.542,96
LIKIDAZIO-OINARRIA 45.000,01 ETA 60.000 EURO ARTEKOA	330	147.971,32
LIKIDAZIO-OINARRIA 60.000,01 ETA 90.000 EURO ARTEKOA	540	235.209,26
LIKIDAZIO-OINARRIA 90.000,01 ETA 120.000 EURO ARTEKOA	355	163.219,02
LIKIDAZIO-OINARRIA 120.000,01 ETA 180.000 EURO ARTEKOA	271	161.262,13
LIKIDAZIO-OINARRIA 180.000,01 ETA 300.000 EURO ARTEKOA	103	65.898,54
LIKIDAZIO-OINARRIA 300.000 ETA 600.000 EURO ARTEKOA	29	26.693,47
LIKIDAZIO-OINARRIA 600.000 EURO BAINO HANDIAGO	12	12.336,45
<b>LOB tarteak, c550</b>	<b>2.840</b>	<b>1.491.931,83</b>

LIKIDAZIO-OINARRIA: Aurrezkiaren likidazio-oinarri orokorra eta likidazio-oinarri berezia barne. Baterako tributazioan familia-unitateko kide guztien likidazio-oinarri orokorren eta berezien batura jasotzen da.

3. Gobernuak zer kostu kalkulatu du izan lezakeela neurri horrek, onartuko balitz?

Neurria dela-eta zenbatetsi den kostua 1.639.400,28 eurokoa da.

4. Gobernuak zer baliabide dauka neurri hori finantzatzeko, onartuko balitz? Gobernuak nola finantzatu nahi du neurri hori?

Neurri horrek 2020ko errenta-aitortpenean diru-sarrerara txikiagoak (itzulketa handiagoak) izatea dakar, eta 2021eko udaberrian aitortu beharko da.

Beraz, horren kostua kontuan hartu da Nafarroako 2021erako Aurrekontu Orokorren proiektuan sartutako partidaren diru-sarreraren zenbatespenak egiterakoan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 26an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## **Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko zenbait aurrekontu-partida ez-betetzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko zenbait aurrekontu-partida ez-betetzeari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 16ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu- talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du bete ez diren partidei buruz eta ekitaldian ez direla beteko aurreikusten direnei buruz (250-20-/PES-00251). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak, zuzendaritza nagusietatik informazioa jasota, ematen dion erantzuna:

#### **1. INGURUMEN ZUZENDARITZA NAGUSIA**

“Toki entitateentzako dirulaguntzak, ibaietan esku hartzeko” izeneko 740003 74300 7609 452100 partidari dagokionez:

Zergatik utzi du Departamentuak aurrekontuko partida hori bete gabe?

COVIDak sortutako krisiaren salbuespenezko egoeraren aurrean, zentzuzkotzat jo zen partida horri zegokion deialdia atzeratzea, krisi horrek eragindako departamentuko sektoreentzako laguntzak deitu behar baziren ere.

Gobernuaren ustez, partida hori ez betetzean eutsiko al zaie 2020ko ekitaldian zehar partidaren xede diren helburuei eta beharrezaneiei?

Partida horrekin planteatutako helburuak eta beharrak ez dira ekitaldi honetan bete. Hala ere, beste aurrekontu-partida batzuekin, ibai-ingurunea hobetzeko jarduerak egiten ari dira, eta, horren ondorioz, partida hori ez gauzatzearen inpaktua txikiagoa da.

#### **2. LANDA GARAPENeko ZUZENDARITZA NAGUSIA**

Parlamentariak honako galdera hauek egiten ditu:

Erantzuna:

Honako hauek dira Nekazaritzako Ustiategien eta Elikagaien Sustapenerako Zerbitzuari dagozkion partidak:

– 720003 72220 4819 413102 Kalitatezko ekoizpenen ekitaldietarako eta sustapenerako laguntzak, 25.000,00 euro.

– 720004 72230 7700 412105 Inbertsioak abeltzaintzako ustiategietan biosegurtasuna hobetze aldera, 250.000,00 euro.

1. Kalitatezko ekoizpenak eta ekitaldiak sustatzeko laguntzak.

Nekazaritzako elikagaien artisauek azoketan eta azoka txikietan parte hartzeko eta halakoak antolatzekeo kostuen zati bat finantzatzeko ziren laguntzak, bai eta Landa Garapeneko Programaren 3.2 neurrian jarduera horietarako aurreikusitako laguntzak jaso ezin dituzten kalitate berezituko figurak sustatzeko ekintzak finantzatzeko ere.

COVID-19aren ondoriozko osasun-alarma eragindako jardueren murrizketek azoka, azoka txiki eta sariketa ugari bertan behera uztea ekarri dute, baita jendeak parte hartzen duen beste ekintza batzuk eta HORECA kanalean oinarritutako sustapen-jarduerak ere.

Egoera horrek sortutako ziurgabetasuna kontuan hartuta, 2020ko ekitaldian laguntzak ez deitzea erabaki da. Hala ere, departamentua 2021erako egiten ari den aurrekontu-proposamenan, bi partida esleitzen dira 2021ean jarduera horiek finantzatzeko, eta partida horien zenbateko osoak bikoiztu egiten du 2020an aurreikusitako zuzkidura.

2- Abeltzaintzako ustiategien biosegurtasuna hobetzeko inbertsioetarako laguntzak.

Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren urriaren 29ko 91/2019 Ebazpenaren bidez, abeltzaintzako ustiategien biosegurtasuna hobetzeko inbertsioetarako laguntzen oinarri arautzaileak eta 2019-2020rako deialdia onetsi ziren.

10 eskaera aurkeztu ziren. Horietatik bik ez zuten inbertsiorako eskatzen den ingurumen-baimena. Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren ekainaren 11ko 42E/2020 Ebazpenaren bidez, laguntzak eman zitzaizkien eskatutako betekizuz-

nak betetzen zituzten 8 espedienteerik; guztira, 94.239,50 euroko laguntzak ziren.

Ordainketa-eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 14an amaitzen zen, baina propio eskatu zuten 4 espedienterik irailaren 14ra arteko luzapena baimendu zitzaien.

Espediente guztiak direla-eta aurkeztu dira ordainketa-eskaerak, eta oinarri arautzaileetan aurreikusitako kontrolak egin ondoren, 8 espedienteentzako laguntzen ordainketa izapidetzen ari dira, 80.527.82 euroko guztizko zenbatekoa egiten duena. Zenbatekoak 2020ko azaroan ordainduko dira.

### 3. NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA ZUZENDARITZA NAGUSIA

Abeltzaintza Zerbitzua:

Partida:

– 710004 71350 4819 412202 (E) entitate laguntzaile gisa aitortutako animalien babeserako elkarteentzako laguntzak, 50.000,00 euro.

Honako hau informatzen dut:

Laguntza horren kudeaketa normaltasun-egoera baterako zegoen aurreikusita, Parlamentuaren aginduz sortutako Animalien Ongizatearen Atala 2020. urtearen hasieran martxan egongo zela uste baitzen.

COVIDaren pandemiak atzeratu egin du sortutako bi plaza berrietan albaitariak kontratatzeak aukera, eta horrek eragotzi egin du deialdi horri dagokionez 2020an aurreikusitako ekintzak gauzatzea.

Bien bitartean, Atalak animalien ongizatearekin lotutako beste alderdi batzuk landu ditu. 2021erako aurreikusitako aurrekontu-zuzkidurarekin urte hasieran deialdi horri aurre egin ahal izatea eta urte horretan laguntzak ematea aurreikusten da.

Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzua:

Partida:

710006 71500 7609 414300 PDR FEADER 2014-2020 Tokiko abeltzaintza-azpiegituretako inbertsioak, 1.239.780,00 euro.

710006 71510 6019 414302 Lurren jabetza antolatzeak eta lurzati berrantolamendua egiteko obrak, 200.000,00 euro

“PDR FEADER 2014-2020” izeneko 710006 71500 7609 414300 partidari dagokionez. Tokiko abeltzaintza-azpiegituretako inbertsioak:

Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren uztailaren 11ko 792/2019 Ebazpenaren bidez onetsi ziren abeltzaintzako toki azpiegiturak sortu eta hobetzeko laguntzak emateko 2020ko deialdia eta oinarri arautzaileak (2014-2020 aldirako “Abeltzaintzako toki azpiegituretako inbertsioak” Landa Garapenerako Programako 04.03.04 operazioa). Eskaerak aurkezteko epea 2019ko urriaren 15ean hasi zen, eta 2019ko azaroaren 29an amaitu.

77 eskaera aurkeztu ziren, eta zuzenketak egin ondoren, inbertsio lagungarriaren zenbatekoak eta toki-erakunde bakoitzari dagokion laguntza kalkulatu ziren. Fase hori amaitu ondoren —ez zen urtarrilera arte hasi, aurreko deialdiko laguntzak ordaintzeko espedienteak izapidetu behar izan baitziren—, ez zen tarterik egon; izan ere, martxoaren 14an administrazio-epe guztiak eten ziren 463/2020 Errege Dekretuarekin, zeinaren bidez COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu baitzen. Alarma-egoera 2020ko ekainaren 21era arte luzatu zen.

Aldi horretan, toki-erakunde askok adierazi zuten ezinezkoa zela oinarri arautzaileetan inbertsioak gauzatzeko eta, ondoren, haiek justifikatzeko ezarritako epeak betetzea (2020ko irailaren 30a). Ezintasun hori ez zen gertatu soilik alarma-egoera deklaratu zuen Errege Dekretuak ezarritako etete-epeagatik, baizik eta onuradunek lizitazioak egiteko eta adjudikazio-hartzaile gertatzen diren kontratek obrak gauzatzeko zituzten zailtasun handiagoengatik ere, hain zuzen ere agertoki horretan prebentzio-neurri gehigarriak ezarri behar baitziren eta horniduretan atzerapenak gerta zitezkeelako.

Hori dela eta, inbertsioak behar bezala gauzatu ahal izateko, deialdiaren 19. oinarrian hasieran ezarritako epeak luzatu egin behar izan dira, hala-ko moduz non inbertsioa gauzatzeko epe berria 2021eko abuztuaren 31ra arte luzatu baita, eta ordainketa-eskaera eta justifikazio-agiriak aurkezteko epea, berriz, 2021eko irailaren 15era arte. Epe hori beharrezkoa da inbertsioak udan egin ahal izateko, toki-erakunde askok adierazten duten bezala; izan ere, inbertsio asko irispide zailleko eta urrutiko lurretan egiten dira, eta horri lurra lehor egoteko beharra gehitu behar zaio; hori dela eta, 2021eko udaberrian eta udan egingen dira jarduketak.

Jarduketa horiek egiteko, beharrezkoa izan da urte anitzeko gastuaren nahitaezko baimena 2021ean izapidetzea, eta baliozkotze hori 2020ko abuztuaren 21ean onetsi da.

Hori dela eta, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren irailaren 3ko 794/2020 Ebazpenaren bidez, onartu egiten da tokiko abeltzaintza-azpiegiturek sortu eta hobetzeko laguntzak ematea edo ukatzea, 2020ko ekitaldirako deialdiari dagokionez, eta inbertsioa gauzatzeko epeak luzatzea 2021eko abuztuaren 31ra arte (egun hori barne), eta ordainketa-eskaera eta justifikazio-dokumentazioa aurkezteko epea, berriz, 2021eko irailaren 15era arte (egun hori barne).

Gastuak ordainduko dira 2021eko gastuen aurrekontuan horretarako gaitzen den —eta “Abeltzaintzako toki azpiegituretako inbertsioak. Landa Garapenerako Programa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza 2014-2020” izeneko 710006-71500-7609-414300 partidaren baliokidea den— 2020ko gastuen aurrekontuko partida baten kargura. Beraz, partidari ez da gauzatzeko 2020an aurreikusitako gastua.

Erabaki horrek ez du ekarriko laguntzak murriztea; izan ere, laguntzak 2014-2020 aldirako Nafarroako Landa Garapenerako Programaren “Abeltzaintzako toki azpiegituretako inbertsioak” izeneko 04.03.04 operazioa dira, 2020ko uztailaren 15ean gauzatzeko gastua aurreikusitako gutzitakoaren % 78 da, eta hura osorik garatu eta gauzatzeko aurreikusitako da, 2023an amaitu arte, programan aurreikusitako 3.150.000 euroko gastu publikoa agortuz.

“Lurren jabetza antolatzeko eta lurzati berrantolamendua egiteko obrak” 710006 71500 6019 414302 partidari dagokionez, martxoaren 14an administrazio-epe guztiak eten ziren 463/2020 Errege Dekretuarekin, zeinaren bidez COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu baitzen. Alarma-egoera 2020ko ekainaren 21era arte luzatu zen.

Ezin izan da partida osoa exekutatu, alarma-egoera deklaratu zuen Errege Dekretuak ezarritako etenaldi-epeagatik ez ezik, lizitazioak edo enkarguak egiteko eta obrak egikaritzeko zailtasun handiagoak egoteagatik ere, hain zuzen ere prebentzio-neurri gehigarriak jasotzen dituen eta horniduretan atzerapenak izateko probabilitatea dagoen agertoki batean.

Beraz, bi partidaren kasuan ez dira beteko partidak horiekin lortu nahi ziren helburuak, eta erantzuna eman nahi zitzaie beharrei ez zaie 2020ko ekitaldian erantzunen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## **Galdera, “Iparraldeko, Pirinioetako eta Erdialdeko transferentziaguneen operazioa, mantentzea eta garraioa” kontratatzeke espedienteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Iparraldeko, Pirinioetako eta Erdialdeko transferentziaguneen operazioa, mantentzea eta garraioa” kontratatzeke espedienteari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 23ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteke galdera egin du (10-20/PES-00254). Hona hemen Nafarroako Gobernu

Lurralde Kohesiorako kontseilariak horri buruz ematen dion erantzuna.

Zertan da Pirinioetako eta Erdialdeko transferentziaguneen operazioa, mantentzea eta garraioa” kontratatzeke espedientea?

Jakinarazi behar dizut jada sinatuta dagoela “Nafarroako Hondakinen Partzuergoko Iparraldeko, Pirinioetako eta Erdialdeko transferentziaguneen operazioa, mantentzea eta garraioa” zerbitzuen kontratu publikoa adjudikatzeko Ebazpena.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## **Galdera, Nafarroari buruzko 2018ko datu soziolinguistikoei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroari buruzko 2018ko datu soziolinguistikoei buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 23ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak datu soziolinguistiko jakin batzuei buruzko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko Erregistroan 5974 irteera-zenbakia duena, 2020ko urriaren 19koa (10-20/PES-00255). Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak atxikirik bidaltzen dizu Nafarroako

Estatistika Institutuko zuzendariak horri buruz igorritako erantzuna:

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetz.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Hona hemen Nafarroako Gorteetako kide Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera parlamentarioa (PES-00255) dela-eta jakinarazi beharreak:

Aurreko PEI-559 galderaren harira igorritako informazioa zuzena da, baina “Nafarroako 2018ko datu soziolinguistikoak” txostenak informazio okerra dauka 39. orrialdean.

Nastat-ek Euskarabidera bidalitako ustiaketan akats bat egon da, biztanleria 'ez-euskal-



dunari' eragiten diona. Ingelesa edo/eta frantsesa hitz egiten ez duen 16 urte edo gehiagoko biztanleria ez-euskalduna % 23,5 da, eta ez % 22,8.

16 urte edo gehiagoko biztanleria ez-euskalduna, ingelesez edo/frantsesez hitz egitearen arabera banatua, adin- eta sexu-taldeei erreparatuta

Aipatutako txostenean aurkezten diren gaineko aldagaien gurtzaketaaren arabera, informazio zuzena honako hau da:

	Biztanleria, guztira		Ingelesez edo/eta frantsesez hitz egiten du		Ez du ez ingelesez ez frantsesez hitz egiten	
	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%
Guztira	418.424	100,0	98.533	23,5	319.891	76,5
Gizonezkoa	204.654	100,0	46.910	22,9	157.744	77,1
Emakumea	213.770	100,0	51.623	24,1	162.147	75,9
16 eta 24 urte bitartekoak	37.080	100,0	22.497	60,7	14.583	39,3
25 eta 34 bitarte	46.923	100,0	20.945	44,6	25.977	55,4
35 eta 49 bitarte	114.520	100,0	34.707	30,3	79.813	69,7
50 urtekoak eta hortik gorakoak	219.902	100,0	20.384	9,3	199.518	90,7

PEI559\_taulak fitxategiko datuekiko alderaketari dagokionez, desberdintasuna populazio desberdinak direlako gertatzen da. Kasu honetan, euskaraz 'ongi' edo 'nahiko ongi' hitz egiten ez duten pertsonen kolektiboa 'ez-euskaldun' gisa etiketatu da, eskaeran egindako eskaerari erantzunez (jarraian kopiatu dugu eskaera hori).

## A LA PRESIDENCIA DE LAS CORTES DE NAVARRA

Iñaki Iriarte López, miembro de las Cortes de Navarra, adscrito al Grupo Parlamentario Navarra Suma, al amparo de lo dispuesto en el Reglamento de la Cámara, realiza la siguiente petición de información al Sr. Director de Nastat.

A la espera de que se redacte el informe jurídico que haga posible la información sobre la Encuesta de Condiciones de Vida 2018, se ruega al Director de Nastat que facilite a la mayor brevedad la siguiente información:

a) Observaciones obtenidas durante la recogida de datos, datos absolutos y porcentajes de la población sin conocimiento de euskara con conocimientos de inglés (habla, entiende, lee y/o escribe bien, bastante bien o algo), por edad, por zonas lingüísticas y por áreas territoriales.

b) Observaciones obtenidas durante la recogida de datos, datos absolutos y porcentajes de la población no vasco-parlante (es decir, que no habla bien o bastante bien euskara) con conocimientos de inglés (habla, entiende, lee y/o escribe bien, bastante bien o algo), por edad, por zonas lingüísticas y por áreas territoriales.

Euskarabidearen metodologian, berriz, kategoria horiek beherago azaltzen den bezala eraikitzen dira.

Gauza bera gertatzen da euskal hiztunen populazioarekin, zeina PE559\_taulak fitxategian egindako eskaeraren arabera eraikita baitago.

Euskarazko hizkuntza-gaitasunen eraikuntza:

“Hitz egitea”, “Ulertzea” eta “erraztasun handiagoz hitz egiten duen hizkuntza” aldagaien bidez eraikitzen da.

- Hiztunak euskaraz 'ongi' edo 'nahiko ongi' hitz egiten badu eta erraztasun handiagoz hitz egiten duen hizkuntza euskara bada, 'euskara elebidun' gisa sailkatzen da.

- Hiztunak euskaraz 'ongi' edo 'nahiko ongi' hitz egiten badu eta erraztasun handiagoz hitz egiten dituen hizkuntzak 'gaztelania eta euskara berdin' badira, 'oreka elebidun' gisa sailkatzen da.

- Hiztunak euskaraz 'ongi' edo 'nahiko ongi' hitz egiten badu eta erraztasun handiagoz hitz egiten duen hizkuntza 'gaztelania edo beste hizkuntza bat' bada, 'erudizio elebidun' gisa sailkatzen da.

- Euskaraz 'zerbait' hitz egiten badu, 'hartaile elebidun' gisa sailkatzen da.

- Hiztunak euskaraz 'ezer ez' edo 'hitz batzuk bakarrik' hitz egiten badu, eta 'zerbait', 'hitzak bakarrik' edo 'ezer ez' ulertzen badu, 'ez-euskaldun' gisa sailkatzen da.

Aurreko kategorizazioetatik abiatuta, beste sailkapen bat sortzen da:

- 'Euskara elebiduna', 'oreka elebiduna' eta 'erudizio elebiduna', 'euskaldun' gisa sailkatzen dira.

- 'Hartaile elebiduna' euskaldun hartaile' gisa sailkatzen da.

- 'Ez-euskalduna', berriz, 'ez-euskalduna' da.

Eskertzen dizugu zure iritzia, zeinak, zalan-tzarik gabe, informazio estatistikoaren kalitatea hobetzen baitu.

Barkamena eskatzen dugu ustiaketan egindako akatsarengatik.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Nafarroako Estatistika Institutuko zuzendaria  
Pablo Cebrián Jiménez

## **Galdera, ARS-CoV 2 detektatzeko test antigenoak erosi eta erabiltzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ARS-CoV 2 detektatzeko test antigenoak erosi eta erabiltzeari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 23ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20-PES-00256), zeinaren bidez “informazioa eskatzen baitu antigenoen testei buruz”. Hona Nafarroako Gobernu-

ko Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

1.- Zer egunetan izapidetu zen SARS-CoV2a detektatzeko antigenoen testaren erosketa?

Hauxe da lehenengo eskariaren data: 2020-09-21.

2.- Erosketa horren prozeduraren, zenbatekoaren, entregaren eta kostuaren xehetasuna.

Larrialdiko prozedura erabili zen. Honako hauek izan dira kopuruak: asteko 10.000 unitate Abbotti, eta asteko 10.000 unitate Rocheri.

Lehenengo entrega 2020-09-28an jaso zen.

Erosketa horrek 110.000 euroko kostua izan zuen.

Horretaz gainera, jakinarazten da erosketa hori astez asteko oinarriaren arabera egin zela, zeren

eta merkatua azkar aldatzen ari baita eta eskaintza bera ere handitzen ari baita.

3.- Antigenoen lehen testak noiz iritsi dira Nafarroara?

Abbott enpresak 2020-09-28an egin zuen lehen entrega, eta Roche enpresak 2020-10-16an.

4.- Zein da horiek erabiltzeko prozedura?

Protokoloa maiz eguneratzen da.

Honekin batera doakizue “SARS-COV-2ak (COVID-19) eragindako gaixotasuna dela-eta jarduteko prozeduraren” eguneratze berria, urriaren 27koa.

Osasun Ministerioaren “COVIDaren detekzio Goiztiarreko, Zaintzako eta Kontrolako Estrategia” erantsi da, 2020ko irailaren 25ean eguneratua.

5.- Noiz hasi dira erabiltzen antigenoen test horiek?

Urriaren 9an, larrialdietan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

## **Galdera, ARS-CoV 2 detektatzeko hondakin-urak kontrolatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ARS-CoV 2 detektatzeko hondakin-urak kontrolatzeari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 23ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20/ PES-00257). Horren bidez informazioa eskatzen “SARS-CoV- 2a detektatzeko hondakin-urak kontrolatzeari buruz”. Hona Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

1.- Nafarroan noiz hasi dira hondakin urak kontrolatzen SARS-Cov-2a detektatzeko?

Navarra de Infraestructuras de Navarra SA (NILSA) enpresa publikoa maiatzean hasi zen hondakin-urak aztertzen, eta 2020ko maiatzaren

25ean hartu ziren aztertzeraz eraman ziren lehenengo laginak.

Ondoren, maiatzaren amaieran, estatu mailan VATar COVID-19 proiektua aurkeztu zen, “Hondakin-uren kontrol mikrobiologikoa COVID-19aren hedapenaren alerta goiztiarraren adierazle epidemiologikoa gisa” izenekoa, zeinean gure erkidegoak parte hartzen baitu. Proiektuaren barruan hautatutako hondakin-uren araztegia Tuterako hondakin-uren araztegia (HUA) izan zen. HUA horretako laginak, proiektuaren kronogramaren arabera, 2020ko uztailaren 16an hasi ziren hartzen.

2. Egindako kontrolen zerrenda eta haien emaitzak.

Agiriak erantsi dira.

3.- Kontrol horiek direla-eta hartu diren neurriak.

Orain arte lortutako emaitzek adierazten dute posiblea dela hondakin-uretan birusaren material genetikoa detektatzea, eta aukera eman dute bai gure erkidegoko laborategian, bai VATar COVID-19 proiektuan parte hartzen duten laborategietan, Espainiako gainerako lekuetan, etengabe doitzen eta kalibratzen ari diren determinazioetan erabilitako teknikak eta sistemak hobetzeko.

Bibliografia aztertzen badugu, azterketa horien interes handiena da adierazle zentinelak izatea, gaixotasunaren prebalentzian gerta daitezkeen aldaketen berri garaiz eman dezaketenak.

Dagoen prebalentzia handiarekin, kontuan hartuta, besteak beste, material genetikoak aurkitu dugula aztertutako lagin guztietan; kontuan hartuta, gainera, proiektua martxan jartzeko epea laburra izan dela, aztertutako lagin-kopuru oso handiarekin, eta, esan bezala, proiektua oraindik prestatzen ari dela, azterlanak gaur egun egin dezakeen ekarpena da joerei buruzko informazioa ematearena, baina ez du aukerarik ematen beste adierazle batzuk aurreikusteko, hala nola kutsatze-kopurua, edo agerraldi posibleen aurreko alerta goiztiarra, erabakiak hartzea eta beharrezko neurri egokiak abian jartzea ahalbidetuko lukeena.

Gainera, gure erkidegoan koronabirusak eragindako infekzioarekin bateragarriak diren sintomak dituen edo kontaktu estua izateagatik jarraitpena egiten ari zaion edozein pertsonari infekzio aktiboa detektatzeko proba diagnostikoak egiteko burutzen ari den estrategia dagoeneko kasuen ehuneko oso handi bat identifikatzeko balio izaten ari da.

4- Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak hondakin uretan SARS-Cov2a kontrolatzeko jarraituko duen estrategia.

Estatu mailan VATar COVID-19 proiektuan parte hartzen jarraituko dugu. Proiektu horretan, esan bezala, Tuterako HUA aztertzen da.

Nafarroako Foru Komunitatean, oraingoz laginak hartzen eta analizatzen jarraitzen da Aratzuriko HUAN.

Nafarroako Gobernuak beste departamentu batzuen beharrezko lankidetzarekin, komenigarria litzateke hondakin-uretan SARS-CoV-2a kontrolatzeko oinarrizko sare bat ezartzea, Aratzuri, Tuterara, Lizarra, Tafalla-Erriberri eta Berako hondakinuren araztegiak barne har ditzakeena, eta, beraz, gure erkidegoko lurralde osoa hartuko lukeena.

Oinarrizko sare hori une jakin batzuetan zabal liteke, agerraldiak egon daitezkeela susmatzen bada, HUA berriak sartuz edo estrategikotzat jotzen diren saneamendu-sareko puntuetan laginak hartuz.

Epe ertain eta luzeari begira, egoera epidemiologikoak hobera egiten duenean eta egungo prebalentzia murrizten duenean, sare honetako datuak COVID-19aren hedapenaren alerta goiztiarraren adierazle epidemiologiko gisa erabili ahalko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

## **Galdera, Navarra Film Commission-ekin lankidetzan gogoan hartu diren plan bereziei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Navarra Film Commission-ekin lankidetzan gogoan hartu diren plan bereziei buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 23ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak idatzizko galdera egin du (10-20/PES-00260), jakin nahi baitu "departamentuak zer plan berezi hartu duen gogoan, Navarra Film Commission-ekin lankidetzan, Nafarroaren aukerak zinematografiako espazio gisa aldezteko, jaialdiak sendotzeko eta diziplina teknikoetan gazteen talentua baloratzeko". Hona hemen Kultura

eta Kiroleko kontseilariak horri buruz jakinarazi beharrekoa:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak programa-kontratu bat du sinatuta 2020rako NICDO erakundearekin zinematografiaren eta ikus-entzunezko ekoizpenaren arloan, zeinak barne hartzen baititu Navarra Film Commission (NFC) delakoaren zuzendaritza eta kudeaketa: filmaketak artatzea, baimenak lortzea, zinema-etxe eta -agenteei informazioa ematea, eta Nafarroan eta Nafarroatik kanpo materiala sortzea eta sustapen-ekintzak egitea, filmaketak Foru Komunitatera erakartzeko.

Era berean, kontratu horren xedea da NICDOk lankidetzara puntuala ematea Nafarroako erakundeek sustatutako zinema- eta telebista-jaialdi eta -ekitaldiekin, baldin eta haiek NICDOren bulegoetan garatzen badira osorik edo zati batean. Horrela, Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorearekin lotutako jaialdi eta lehiaketekin zuzenean lan egiten da komunitatearen turismoa eta ikus-entzunezkoak sustatzeko:

- NIFF
- Nafarroa, Zinema Lurraldea
- Datorrena
- Zinetika

Programa-kontratu honetan NICDOk Nafarroako Ikus-entzunezkoen Klusterrean (CLAVNA) parte hartzea ere adostu da, eskubide osoko bazkide gisa. NICDO, NFCren bidez, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Klusterraren (CLAVNA) bazkide sortzailea da. Kluster hori 2016an sortu zen, ikus-entzunezkoen jarduerak eragindako sektore profesional guztiak erakunde berean bateratzeko, helburu komunak baitituzte ikus-entzunezkoen ekoizpenaren garapen industrial eta kulturalerako, komunitate osoaren mesedetan. Aurten, honako arlo hauetan lan egiten jarraitu da:

– CLAVNAREN Plan Estrategikoa garatzea eta Ikus-Entzunezkoen Sektorerako Prestakuntza Plana.

– Nafarroako Ikus-entzunezkoen Gida, produkzioaren inguruko giza baliabideei eta baliabide teknikoei buruzko beharrezko informazio guztiarekin. Era berean, ostalaritzako eta zerbitzuetako gida, edozein ekoizle edo inbertitzailearen eskura egonen dena ([www.navarrafilmmindustry.com](http://www.navarrafilmmindustry.com) helbidean eskuragarri).

– Bazkide berriak bilatzea.

#### Navarra Film Commission-en funtzioak eta jardura

Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko 1/2019 Foru Legearen 15. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Navarra Film Commission erakundeak Nafarroan lan egiteko behar duten informazioa emanen die ikus-entzunezko sektoreko enpresa eta profesionalei, naziokoei nahiz nazioartekoei, eta, horrekin batera, aholkularitza integrala lokalizazioak aurkitzeko, ekoizpeneko logistikan eta behar duten beste edozein zerbitzutan.

Horretarako, dohainik eskaintzen dizkie informazio-, aholkularitza- eta izapide-zerbitzuak ikus-entzunezko ekoiztetxei, agentziei edo enpresei, filmaketa, grabazio edo hartze fotografikoari buruzko erabakiak hartzea errazteko eta interesa duten enpresek beren giza baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak optimizatzea lortzeko.

Navarra Film Commission arduratzen da filmaketa horiek sendotzera eta erraztera bideratutako akordioak eta ekintzak sustatzeaz, eta Nafarroako Gobernuaren, administrazio publiko eta partikularren eta ikus-entzunezkoen industriaren arteko lotura da.

Filmaketak erakartzeko bulegoa eta lurraldea sustatzeari dagokionez, NFCk, aurreko urteetan bezala, honako ekintza hauek garatzen ditu:

– [navarrafilmm.com](http://navarrafilmm.com) web-orriaren mantentze-lanak.

– Sustapen-materialak eta euskarriak berrargitaratzea, estatuan eta nazioartean fisikoki zein online banatzeko

– Nazioko eta nazioarteko azoka eta industria-foroetan egotea, Nafarroako lurraldea sustatzeko. Aurten, honako foro hauetan parte hartu da:

- Online merkatuetarako parte hartzea 2020an
  - Marché du film Cannes
  - Mipcom
  - Malagako jaialdia
  - Shangai Film Market
  - Seminci
  - American Film Market
  - Series Nostrum
  - Focus Digital
- Merkatu fisikoetako parte hartzea 2020an
  - Fitur
  - Berlingo Nazioarteko Zinemaldia
  - SSIFF (San Sebastián International Film Festival)

2020an bertan behera geratu direnak

- Series Manía
- Ventana Cine Madrid
- Hendaia Film Festival

- Conecta Fiction 4ren koekoizpena (Conecta Fiction Reboot, 2020an)

– Nafarroako Gobernuako Turismo Arloarekiko lankidetzak, lokalizazioen eta “Zinema-turismoko” ekintzen garapenaren arloan.

– Nafarroako lurraldean eta azalera eta kokaleku berezietan filmaketen erraztasunak bultzatzeko lankidetzak-hitzarmenak eta akordioak sustatzea

Bere lana eraginkortasunez gauzatzeko, Navarra Film Commission erakundeak parte-hartze aktiboa du Film Commission-en sare nazional eta europarretan, errodajeak erakartzeko lurralde-abantailak nazioartean areagotzeko eta sustatzeko. Helburu horrekin, Spain Film Commission (SFC) eta European Film Commission Network (EFCN) erakundeetako bazkidea da. Erakunde horiekin zuzenean lan egiten du nazioarteko jaialdiak eta erakundeen batzar orokorren aurrez aurreko eta ordezkari bidezko antolaketan:

- EFCNren batzar orokorra (abendua)
- SFCren batzar orokorra (ekaina) + Valladolideko Zinema Turismoaren Jardunaldia
- Berlinale; European Film Market (otsaila)
- Cannes; Marché du film (maiatza)
- Donostia Zinemaldia; The Industry Club (iraila)
- AFCI Cineposium (iraila)
- MIPCOM (urria)
- American Film Market (azaroa)

SFCren bitartez, lanean ari da Casa de la Indiarekin bi lurraldeetan ikus-entzunezkoen industriak sustatze aldera. Funtsezko ekintzetako bat da Espainiako antolaketa sartzeari herrialdeko jaialdietan eta Bollywooden industrian, zeina munduko emankorrenetako bat baita:

- International Film Festival of India (IFFI); Film Bazaar (Goa; azaroa)
- Mumbai Film Festival (urria)

Halaber, SFCrekin eta “Invest in Spain” (ICEX) departamentuarekin lankidetzan, liburuxka bat prestatu da lurralde nazionalerako zerga-pizgarrien nazioartean ezagutarazteko. Liburuxka horretan, Nafarroari buruzko informazioa eta kontaktu guztiak sartuta daude. 2019an, lehenengo aldiz, Espainia

SFCren bidez ordezkari egon da, ICEXekin lankidetzan, Txinako ikus-entzunezko merkatuan.

2019a izan da, halaber, Spain Film Commissionek Los Ángeles-en (California) gidatutako topaketa bat bultzatu duen lehen urtea, American Film Market taldearen testuinguruan, merkataritza-harremanak garatzeko eta ikus-entzunezko proiektuak erakartzeko Ipar Amerikako ekoizle nagusien eta Espainiako ekoizleen artean. Shooting in Spain I. topaketak Mediapro Taldearen eta Secuoya Taldearen babesak izan du, eta lankidetzan aritu dira Turismoako Estatu Idazkaritza, ICEX - Invest in Spain, Los Ángelesko Espainiako Konsulatu Orokorra, Kaliforniako Gobernuak eta Los Ángelesko Alkatetza.

2017az geroztik, lan-batzorde berriekin lan egiten da, elkartearen eginkizunak bideratu ahal izateko. Batzorde horiek honela ezarri eta koordinatzen dira:

Merkatuak eta nazioarteko ekintza

Komunikazioa eta erakunde-harremanak

Espainian errodatzeko: pizgarriak eta lokalizazioak.

Turismo zinematografikoa

Erakunde harremanak

Babesleak eta babesletzen aholkua lortzea

Lurralde-hedapena eta -koordinazioa

2018ko abenduaz geroztik, Navarra Film Commission Spain Film Commissionen zuzendaritza-batzordeko kidea da. SFC EUFCN (European Film Commission Network) eta AFCI (Association of Film Commissioners International) erakundeetako bazkidea da.

Halaber, NFCren lanen norainokoan sartzen da publizitate eta lankidetzak egiten dituen hedabide espezializatuekin banner, iragarki edo publizitate-erreportajeen bitartez Nafarroa nazioan eta nazioartean errodajeak egiteko lurralde gisa saltzeko.

Ekintza horien osagarri, zinemaren arloan interesa duten era guztietako eragileekin etengabeko bilerak eta topaketak egiten dira: ekoiztetxeak, Nafarroako Gobernuako departamentuak (Politika Ekonomikoa, Nafarroako Enplegu Zerbitzua...), Espainiako Animazio Elkarteak (DIBOOS) eta Bideojokoen Elkarteak (DEV), tokiko agenteak (Sodena, Nasertic, NUP, ATANA, Creanavarra ...), banka eta aholkularitza fiskalak, NAPAR, CLAVNA Ikus-entzunezko Klusterra, sektoreko enpresak...

**FILMAKETAK NAFARROAN**

NFCk laborpen-taula batean laburbiltzen ditu fikziozko eta dokumental film luzeei, film laburrei, telebista serieei, spotei, bideoklpei, telebista programei, argazki-erreportajeei eta bideo instituzionaleri buruzko guztizko zenbakien bolumenak.

Hona hemen Nafarroan egindako filmaketen datuak, 2015etik 2020ko abuztuaren amaierara arte:

<b>TIPOLOGIA</b>	<b>2015-2017 HIRURTEKOA, GUZTIRA</b>	<b>2018-2020 HIRURTEKOA, GUZTIRA (2020ko abuztu amaierara arte)</b>
FIKZIOZKO FILM LUZEAK	27	29
DOKUMENTAL ERAKO FILM LUZEAK	24	23
FILM LABURRAK	64	100
TELESAILAK	5	12
SPOTAK	38	36
BIDEOKLIPAK	11	9
TELEBISTA PROGRAMAK	22	28
ARGAZKI-BIDEO ERREPORTAJEAK	7	24
BIDEO INSTITUZIONALAK	8	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>206</b>	<b>262</b>

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Gaitasun Profesionalak Garatzeko Zerbitzuak honako informazio hau eman du, 30 urtetik beherakoek orain arte antolatutako ikus-entzunezko ikastaroetan parte hartzeari buruz, gazteen talentua sustatzeko eta finkatzeko:

Hasitako ikastaroak, guztira (hiru deialdi egin dira)	12
Ikastaroak hasi dituzten 30 urtetik beherako ikasleak, guztira	72
Amaitu gabeko ikastaroak, guztira	8

Amaitzeko dauden 8 ikastaroetan 40 gazte inguruk parte hartuko dutela kalkulatzen da.

Prestakuntza ez-formalaren bide berria gehitu beharko litzateke, non jardunaldi presentzialen, "urrutiko jardunaldien" edo autoikaskuntzako pilulen bidezko jardunaldien bitartez, gai horri buruzko ekintzetan 30 urtetik beherako 500 bat adingabek parte hartzen baitute.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## Galdera, PCR probak egiteko Refena erabiltzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, PCR probak egiteko Refena erabiltzeari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 23ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20- PES-00261). Horren bidez jakin nahi du “Nafarroako Gobernuak zergatik aukeratu zuen Refena, eta ez beste eraikin publiko batzuk, PCR probak egiteko?”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

REFENA aukeratu zen herritarrei PCR masiboak egiteko zirkuitu integral bat premiaz muntatu behar zelako. Ez zen izan martxoaren hasieran, ziurgabetasun handiko une batean, COVID-19ak sortutako agertoki konplexuari eman zekizkiokeen erantzunen artean aztertutako aukera bakarra. Segurtasun-arrazoiak tarteko, hasiera-hasieratik planteatu zen komeni zela erabiltzaileak beren ibilgailuan joatea aukeratutako lekura, eta, horregatik, espazio zabal bat bilatu behar izan zen, turismoek zirkulatu ahal izateko. Hori dela eta, hasiera batean, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdietako Eskolako aparkalekua aukeratu zen, Beriainen, martxoaren 14an abiarazi zen dispositibo baterako, eta gure erkidegoa Estatuko lurralde aitzindarietako bat bihurtu zen zirkuitu azkar batean probak egiten.

Kokapen hori erabili zen bigarren egunean, egoera baloratu zen Foruzaingoko agintariekin, kidego horrek hasiera-hasieratik lagundu baitzuen egin beharreko lanetan, eta polizia autonomikoak berak planteatu zuen REFENAKo nabea egokia zela langileak eguraldi txarretik babesteko. Nafarroako Gobernuak urrats hori egin zuen hainbat osasun- eta logistika-aukera aztertu eta barrutiarren jabeak pandemiari eusteko funtsezko hedapen-lanetan laguntzeko duen prestasuna egiaztatu ondoren. Interes orokorra eta osasun publikoa

izan ziren beti lehentasunak bi alderdientzat, lehenengo elkarrizketetan egiaztatu zen bezala.

Testak toki bakar batean zentralizatzea estrategikoa zen gobernuarentzat, eta laginak hartzea eta ondorengo analisia bizkortzeko aukera ematen zuen, eta, ondorioz, denbora aurrezteko aukera, ezinbestekoa egun haietan bizi izan genuen egoeran. Horregatik, etxez etxeko laginketak egiteko sortutako bost taldeetatik, REFENAn finkatutako bilketa-gune bakarra sortzera igaro zen, herritarren eta profesionalen segurtasuna zaintzeko, esan den bezala. Erabaki hori, era berean, baliabideak eta denbora optimizatzeko beharrezko ondorio izan zen; izan ere, denbora ezinbesteko faktorea da pandemiaren garapen osoan. Ildo horretan, proba-kopurua handitzeko aukera zegoen, profesionalen arteko harremana minimizatzen zen eta norbera babesteko ekipoen (NBE) erabilera murrizten zen, halakoak oso garestiak ziren une haietan.

REFENA bitarteko gisa baliatzearen terminoek lotura zuzena dute elementu materialen eta instalazioak egokitzeko elementuen konplexutasunarekin; izan ere, azoka-esparrua erabiltzen hastean, elementu horiek ezin izan ziren zehaztasunez ezarri, laginak hartzeko eta herritarrak arakatzeko sistema abian jartzeko presa zegoelako. Egoera urgentziazkoa zen eta, alderdientzat, lehentasuna osasun publikoa zen. Fakturretan zehatz-mehatz txertatzeko elementu materialak eta egokitzapenak eskuragarri jartzeari buruzko ondorengo negoziazioaren ondorioz, atzeratu egin da faktura horiek onartzeko eta, ondorioz, ordaintzeko prozesua, baina ordainketa ez da inoiz zalantzan egon.

Ekainean hasi ziren negoziazioak, alarma-egoeratik berehala aterako ginela ikusita, eta Administrazioak eta REFENAKo emakidadunak epe luzerako akordio batera iristeko interesa zutela ikusita. Negoziatzeko asmoa zeran datza, bi alderdiek uste izatean negoziazio, akordio eta izapidetze administratibo azkarrak egonen zirela. Hala ere, jarreraren arteko dibergentziak eta pandemiaren bilakaera azkarrak (hilabete horretan bertan hasi zen bigarren olatua, eta orain arte luzatu da) REFENAKo baliabideen kudeaketa zaildu zuten, baita negoziazioa eta balizko konponketa ere.

Elkarrizketetarako, bi alderdiek profil baxuago-ko ordezkariak izendatu zituzten, ahalik eta lasterren konponbide teknikoa lortzea ahalbidetzeko.



Negoiazioan bi aukera zeuden: epe luzeko erren-tamendua edo kontratua hutsaltzea. Akordioaren arabera, eremu horretan sartuko liriteke orain arte egindako gastuak.

Hala ere, elkarrizketen aurrerapena zailtzen joan zen, eta uztailaren amaieran halako punturaino iritsi zen non bi alderdiak bat etorri baitziren egoeraren azterketan: negoziazioa luzatzen ari zen, eta, konponbide goiztiarrik ez zegoela ikusten zenez, erantzun onena zen REFENA enpresak fakturatzeko ordura arte egindako lanengatik, horrela, kobratu ahal izateko. Abuztuaren 6an, REFENAK bi fakturen albaranak bidali zituen, al-tzariak alokatzeagatik eta egindako funtzioengatik. Horietako bat martxotik ekainera bitartekoa da, eta bestea, uztailetik abuztura bitartekoa. Bi albaranek abuztuaren 6ko data dute.

Faktura horien eta egin diren beste batzuen edukia, kontzeptuak eta kostua Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zerbitzuek aztertu dituzte, eta REFENAREN emakidadunari exigitu diote, ohiko prozedura den bezala, faktura horiek justifika ditzan. Eskaera horien erantzunaren garaian, ordea, askotan ezezkoa edo erresisten-zia topatu izan dira. Horrek, Nafarroako Gober-

nuaren zeharkako zerbitzu batzuentzat pandemia-ren kudeaketaren arloko larrialdi-espeditentek eragiten dituzten zalantzekin batera, espeditenteen ordainketa nahi baino gehiago atzeratzea ekarri dute.

Nolanahi ere, Administrazioak dirua sartu du. Urriaren 23an 137.393,08 euro ordaindu zizkion emakidadunari, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 964/2020 ebazpenaren arabera. Bestalde, irailaren 16an 2.367,97 euro ordaindu ziren beirateen erro-tulazioagatik eta itsasgarriak kentzeagatik. Halaber, azaroaren 4an 1.089 euro ordaindu ziren Larrialdietako Unitate Militarreko (UME) arakatzailentzat urrian alokatutako aparteko altzariengatik, beste 1.391,50 euro irailean kontzeptu berarengatik eta 955,90 euro 'osasun-karpetarako' altzariak alokatzeagatik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, Foruzaingoak Irunberrin 2020ko abuztuaren 15ean egindako salaketa-buletinei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku-luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera-ren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Foru-zaingoak Irunberrin 2020ko abuztuaren 15ean egindako salaketa-buletinei buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 23ko 115. Nafarroako Parlamen-tuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxi-kitako Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (PES-00262). Haren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

2020ko abuztuaren 15ean, Foruzaingoako agenteek zenbait ibilgailutako jabeen aurkako salaketa-buletinak bete zituzten Irunberrin.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Agente horiek zenbat salaketa-buletin egin zituzten Irunberrin abuztuaren 15ean?

– Salaketa-buletin horietako zenbat igorri zi-tzaizkion Irunberriko udalari, bera baita zehape-nak ezartzeko administrazio eskuduna?

– Salaketa-buletinen bat ez zitzaion udalari igorri beste administrazio bat izateagatik zehape-nak ezartzeko administrazio eskuduna? Hala bal-din bada, zenbat buletin ez ziren udalera igorri eta zer beste administrazioetara igorri ziren?

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak, goian egindako idatzizko galderari erantzunez, adierazi

behar du ezen, administrazio-espeditenteak izapidetzen dituzten unitateei kontsulta egin ondoren, abuztuaren 15ean, Zangozako Foruzaingoak 3 administrazio-salaketa (AY3633 / AY6192 / AY3855) aurkeztu zituela Zirkulazio Erregelamendu Orokorra hausteagatik.

Era berean, espeditente horiek abuztuaren 18an eraman ziren Iruñeko Foru Poliziaren Administrazio Kudeaketako Taldera, zehazki Trafikoa eta Bide Segurtasuna Izapidetzeko Unitatera.

Abuztuaren 21ean, espeditente horiek postaz bidali ziren Irunberriko Udalera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, Espainiako Itzuliak Nafarroan eginen dituen bi etapetako gastu publikoari, osasun-neurriei eta euskararen erabilera bermatzeko ekimen eta jarduketei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Espainiako Itzuliak Nafarroan eginen dituen bi etapetako gastu publikoari, osasun-neurriei eta euskararen erabilera bermatzeko ekimen eta jarduketei buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 23ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro idatziz erantzuteko galdera bat egin du (10-20/PES 263); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari:

Lehena. Itzuliaren bi etapak egiteko jarri den gastu publikoa (Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik, enpresa publikoetatik eta toki entitateetatik).

Bigarrena. Txirrindularien, teknikarien eta, oro har, ikusleen osasun-segurtasuna bermatze aldeira COVID-19a dela-eta hartutako osasun-neurriak nahiz osasun publikoko neurri bereziak. (hori dela-eta sinatu diren hitzarmenen eta akordioen dokumentazioa igortzea eskatzen dut).

Hirugarrena. Itzuliaren garapenean eta komunikazioetan euskararen erabilera bermatzeko ezarri diren ekimenak eta jarduketak.

Horri erantzuteko honako hau jakinarazten dizut:

UNIPUBLIC SAUk babesletza-eskaera aurkeztu zuen Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiko Turismoko Marketinaren eta Nazioartekotzearen Zerbitzuan, 2020ko Espainiako Itzuliaren 2. etaparen iritsiera eta irteera (Iruñea-Lekunberri) egiteko eta 3. etaparen irteera (Lodosa-Laguna beltza) egiteko. Eskaerarekin batera, babesletzaren balorazio ekonomikoa eta itzulkin turistikoak ebaluatzeko datuak aurkeztu zituen.

Honako ekintza hauek biltzen zituen:

– 2020ko Espainiako Itzuliaren ibilbide ofizialaren aurkezpena. RTVEren kanal baten bidez emanen da, eta Nafarroan zehar igarotzen diren etapak adieraziko dira.

– RTVEren kate baten bitartez zuzenean emanen dira bigarren etapako azken 60 minutuak eta hirugarren etapako irteeraren laburpena.

– Espainiako Itzuliaren webgune ofizialean ([www.lavuelta.com](http://www.lavuelta.com)) Nafarroako Erresuma turismo-markak bannerra bat izanen du, txandaka, [www.turismo.navarra.es](http://www.turismo.navarra.es) webgunerako esteka batekin.

– Nafarroako Gobernuak ordezkari batek agur bat idatziko du Ibilbide Liburu digitalean.

– 20 metroko publizitate-espazioa gordeko da Iruñeko eta Lodosako irteeran eta Lekunberriko sarreran olanak jartzeko.

– Bigarren etapako ibilbideko leku garrantzitsuenen gida turistikoa prestatuko da.

Sarreran eta irteeretan jarriko diren olanek ele bitan eramanen dute Nafarroako marka turistikoa.

Turismoko Marketinaren eta Nazioartekotzearen Zerbitzuak 2020 Espainiako Itzulia babes-tuko du 60.000 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne). 30.000 euro Kultura eta Kirol Departamentuaren partida izendun bati dagozkio eta beste 30.000 euro, berriz, Turismoko Marketinaren eta Nazioartekotzearen Zerbitzuaren publizitate eta zabalkunde ekintzei.

Erakunde antolatzaileak Komunikazio Zerbitzura bidalitako publizitate-itzulkinen balorazio-txostena eskatu zen, eta zerbitzu horrek jakinarazi

zuen ekitaldiak behar beste kontraprestazio dituela ekitaldi hori babesteko.

Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiaren eta UNIPUBLIC SAUren arteko babesletza-kontratua sinatu da, 2020ko Espainiako Itzuliaren enpresa antolatzailea den aldetik, 60.000 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne).

Babesletza-kontratuan jasotako ekintzak egin izanaren justifikazioa jasotzeke dago hura ordaintzeko.

Erantsitako agirian doakizu eskatutako informazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 22an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, kirol-ekitaldien babesletzari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kirol-ekitaldien babesletzari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 30eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-20/PES-00264). Hona Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariaren erantzuna: “Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak, eta zehazki zure departamentuak, Nafarroako Kirolaren Institutuak interes orokorrekotzat jotako kirol-ekitaldien kirol-babesletza sustatzeko?” Honako hau jakinarazten du:

Departamentua ekintza hauek egiten ari da kirol-babesletza bultzatzeko:

– Kirol-ekitaldiak antolatzen laguntzeko partida handitzea. Aurrekontuen proiektuak % 12ko igoe-ra jasotzen du 2020ko aurrekontuekiko, eta horrek

erraztu egiten du ekitaldi horiek antolatzea eta probarako babesleak lortzea.

– Miguel Induráin Fundazioaren eginkizunetako bat enpresa-sarearen baliabideak erakartzea da, kirol-jarduera eta ariketa fisikoa garatzen eta hobetzen inbertitzeko, bereziki errendimendu-kirolean. 2021erako helburuen artean, Miguel Induráin Fundazioaren enpresa laguntzaileekin ekitaldiak eta topaketak antolatzea eta egitea daude, egindako lanaren berri emateko, helburu komunak dituzten enpresen arteko topaketa bultzatzeko eta haien ekarpenen gizarte-itzulera ikusarazteko; halaber, fundazioaren etengabeko lana ikusaraztea, edo jarduerak eta tailerrak antolatzea enpresa laguntzaileen eta kirolari bekadunen artean, biak ikusarazteko eta garatzeko.

– Nafarroako Kirolaren Institutuak komunikazio-kanpaina bat egiteko agindu du, enpresa eta marka babesleak aitortzeko, babes-lana eskertzeko eta enpresa eta marka gehiagoren lankidetzat bultzatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko azaroaren 24an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## Galdera, unibertsitate-ikasketetarako 2020/21 ikasturterako beken deialdiari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, unibertsitate-ikasketetarako 2020/21 ikasturterako beken deialdiari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 30eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioko kide Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2020/21 ikasturterako unibertsitate-ikasketetarako beken deialdiari buruz (10-20/PES-00265). Hona Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horri buruz jakinarazten diona:

1. Noiz aurkeztuko da 2020/21 ikasturterako unibertsitate-ikasketetarako beken deialdia?

Urriaren 28ko NAOan argitaratu da.

2. Zer aldaketa eginen dira helburu horiek betetzeko?

#### – DEIALDIA

- 2019-20ko deialdiaren testua berrikusi da, eta hura osatzen duten atalak berrantolatu dira.

#### – IZAPIDETZEA

- Eskatzailea ikaslea bera izan behar da, eta eskaera telematikoki baino ezin da egin, Ministerioaren deialdian gertatzen den bezala.

#### – BALDINTZA AKADEMIKOAK

- Murriztu egin da aurreko ikasturtean gainditutako kredituen betekizuna Zientzia eta Ingeniaritza eta Arkitektura adarretako titulazioetarako. % 70etik % 65era pasatu da.

- Eskatutako errendimendu akademikoa bete den zehazteko (matrikulatutako kredituen gainean gainditutako kredituen %), ez dira zenbatuko COVID-19aren ondorioz baliogabetutako ikasgaiak.

- Zientzia eta Ingeniaritza eta Arkitektura adarretako graduetakoa ikasketa-planetan aurreikusitakoa baino urtebete gehiago luzatuko da bekadun izaeraren iraupena.

#### – ALDERDI EKONOMIKOAK

- Deialdian aurreikusten da, salbuespen gisa, 2020ko datu ekonomikoak erabili ahal izanen direla familia-errenta erabilgarria zehazteko, 2019koak erabili beharrean, baldin eta COVID-19ak agindutako alarma-egoeraren ondorioz diru-sarreraren beherakada larria gertatu bada 2020an, 2019ko diru-sarrerekin alderatuta.

- Ez da zigorrik ezarriko matrikula-laguntzetan emandako zenbatekoan, ikasleak aurreko ikasturtean gainditu ez dituen irakasgaiak baditu. 600 euroko kenkari bat gehitu da, familia errenta erabilgarrian aplikatzen dena, guraso bakarrekoko familia unitate bateko kide izateagatik.

- Errentaren 1. atalasea egokitzen da, Ministerioak bere deialdian sartu duen aldaketaren arabera.

- Jaso beharreko gehieneko zenbatekoa eguneratzen da; hemendik aurrera, deialdia argitaratzen den urtean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata izanen da.

3. Handitu eginen al da iazko ikasturterako bideratu zen 3,3 milioi euroko partida?

3,3 milioi euro zuzkidurari eutsi zaio.

4. Zein izanen da aurrekontu-zuzkidura?

3,3 milioi euro

5. Aparteko zer neurri sartuko dira COVID-19aren pandemiaren ondorioak arintzeko?

COVID-19a dela-eta agindu den alarma-egoeraren ondorioz, diru-sarreraren beherakada larria gertatu bada 2020an 2019ko diru-sarrerekin alderatuta, deialdiak aurreikusten du 2020ko datuak erabili ahal izanen direla familia errenta erabilgarria zehazteko, deialdian adierazten diren 2019ko datuen ordez.

Horrela, laguntzak familia-unitatearen atalase ekonomikoaren arabera ematen direnez, pandemiaren ondorioz egoera ekonomikoa larriagotu zaien familiengana iritsiko gara. Gainera, eskatutako gainerako baldintzak betetzen badituzte,

deialdian aurreikusitako aparteko laguntza ere emanen zaie.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko azaroaren 18an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

## **Galdera, Nafarroako hizkuntza eskolen kontingentzia planari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako hizkuntza eskolen kontingentzia planari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 30eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak 10-20/PES-00267 galdera egin du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

– Zer neurri berezi diseinatu dira horrelako irakaskuntzetako ikasleen eta irakasleen osasuna babesteko:

Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 31ko 75/2020 Foru Aginduaren bidez onetsitako 2020-2021 ikasturterako aurrez aurreko hezkuntza-jarduera garatzeko prebentzio- eta antolaketa-protokoloari jarraituz, Nafarroako hiru hizkuntza-eskola ofizialek kontingentzia-plan bana garatu dute 2020-21 ikasturterako, honako gidoi honekin:

1. Pandemiari egokitutako eskola-antolamendua

1.A Ikastetxeen antolamenduari buruzko gogoeta orokorrak.

1.B Egoerak unean uneko osasun-errealitatearen arabera sailkatzea.

1. egoera: kutsatzeko arriskua nahiko txikia da eta fokuak kontrolatzeko gaitasuna handia da.

2. egoera: sektoreen blokeo indartua.

3. egoera: ikastetxeak ixtearen alternatiba, sektoreak erabat blokeatzea.

4. egoera: ikastetxeak erabat ixtea.

2. Ikasmilen eta arloen programazio didaktikoa

3. Zuzkidura teknologikoa

4. Gaitasun digitala indartzeko plana

5. Urrutiko eskola-jarduerarako tutoretza-plana

6. Antolaketa- eta segurtasun-neurriak.

Ikasturtearen hasiera sektoreen blokeo indartuko 2. egoeraren barruan gertatu zen. Eskolak beren kontingentzia-planetan zehazten diren neurriak aplikatzen ari dira egoera horretarako (I., II., III. eta IV. eranskinak).

– 2020/21 ikasturte honetan matrikulatutako ikasleen eta 2019/20 ikasturtean matrikulatutakoen arteko aldeak

Honako hau da bi urte akademikoetako bakoitzaren ikasle-zerrenda, eskolaren (Iruñea eta Tuter), ikastaroaren eta hizkuntzaren arabera ordenatuta:

## HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO MATRIKULA

## 2019-20 eta 2020-21 IKASTURTEAK

TUTERAKO HEO	2019-20	2020-21	ALDEA	%
<b>ALEMANA</b>				
Oinarrizko maila A1	19	11		
Oinarrizko maila A2	3	13		
Tarteko maila B1	3	6		
Tarteko maila B2.1	4	2		
Tarteko maila B2.2	3	4		
Maila aurreratua C1	3	6		
Alemanera, guztira	35	42	7	+20,00
<b>EUSKARA</b>				
A1 / A1	11	8		
A2 / A2	2	4		
B1 / B1	2	3		
B2.1 / B2.1	2	3		
B2.2 / B2.2	2	2		
Maila aurreratua C1	6	16		
Euskara, guztira	25	36	11	+44,00
<b>FRANTSESA</b>				
A1 / A1	32	18		
A2 / A2	18	11		
Tarteko maila B1	13	18		
Tarteko maila B2.1	17	16		
Tarteko maila B2.2	11	21		
Maila aurreratua C1	16	21		
Frantsesa, guztira	107	105	-2	-1,87
<b>INGELESA</b>				
A1 / A1	76	45		
A2 / A2	52	34		
Tarteko maila B1	90	120		
Tarteko maila B2.1	117	85		
Tarteko maila B2.2	63	104		
Maila aurreratua C1	71	114		
Maila aurreratua C2.1	0	16		
Ingelesa, guztira	469	518	49	+10,45
<b>Tuterako HEO, guztira</b>	<b>636</b>	<b>701</b>	<b>65</b>	<b>+10,22</b>

Iruñeko HEO	2019-20	2020-21	ALDEA	%
<b>ALEMANA</b>				
Oinarrizko maila A1	131	76	BI TALDE GUTXIAGO	
Oinarrizko maila A2	68	65		
Tarteko maila B1	74	69		
Tarteko maila B2.1	38	50		
Tarteko maila B2.2	28	25		
Maila aurreratua C1	29	40		
Alemanera, guztira	368	325	-43	-% 11,68
<b>EUSKARA</b>				
A1 / A1	153	80		
A2 / A2	125	83		
B1 / B1	95	89		
B2.1 / B2.1	71	59		
B2.2 / B2.2	113	91		
Maila aurreratua C1	174	168		
Euskara, guztira	731	570	-161	-% 22,02
<b>FRANTSESA</b>				
A1 / A1	150	96		
A2 / A2	114	94		
Tarteko maila B1	163	129		
Tarteko maila B2.1	76	75		
Tarteko maila B2.2	39	58		
Maila aurreratua C1	45	47		
Frantsesa, guztira	587	499	-88	-% 14,99
<b>INGELESA</b>				
A1 / A1	122	125		
A2 / A2	109	69		
Tarteko maila B1	412	274		
Tarteko maila B2.1	346	314		
Tarteko maila B2.2	420	388		
Maila aurreratua C1	432	438		
Maila aurreratua C2.1	100	98		
Maila aurreratua C2.2	23	49		
Ingelesa, guztira	1.964	1.755	-209	-% 11,00
<b>ITALIERA</b>				
A1 / A1	46	29		
A2 / A2	39	30		
Tarteko maila B1	16	28		
Tarteko maila B2.1	16	9		
Tarteko maila B2.2	13	16		
Maila aurreratua C1	28	13		
Italiera, guztira	158	125	-33	-% 20,89
<b>Iruñeko HEO, guztira</b>	<b>3.808</b>	<b>3.274</b>	<b>-534</b>	<b>-% 14,02</b>



Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala (NUHEO)	2019-20	2020-21	ALDEA	%
<b>ALEMANA</b>				
Oinarrizko maila A2	72	47		
Tarteko maila B1	52	16		
Tarteko maila B2.2	1	1		
Alemanera, guztira	125	64	-61	-% 48,80
<b>EUSKARA</b>				
Oinarrizko maila A2	166	121		
Tarteko maila B1	175	73		
Tarteko maila B2.2	940	849		
Maila aurreratua C1	863	485		
Euskara, guztira	2.144	1.528	-616	-% 28,73
<b>FRANTSESA</b>				
Oinarrizko maila A2	222	197		
Tarteko maila B1	231	153		
Tarteko maila B2.2	32	11		
Maila aurreratua C1	7	2		
Frantsesa, guztira	492	363	-129	-% 26,22
<b>INGELESA</b>				
Tarteko maila B1	1.339	1.230		
Tarteko maila B2.1*	4	23		
Tarteko maila B2.2*	888	679		
Maila aurreratua C1*	179	145		
Bigarren Hezkuntzako ingeleseko programa, guztira *	2.410	2.077	-333	-% 13,82
That's English A2-1	126	77		
That's English A2-2	134	138		
That's English B1	227	274		
That's English B2-1	195	141		
That's English B2-2	173	235		
That's English C1		176		
That's English ingeleseko programa, guztira	855	1.041	-186	-% 22,00
<b>NUHEO, GUZTIRA</b>	<b>6.026</b>	<b>5.073</b>	<b>-953</b>	<b>-% 15,81</b>

\* Bigarren Hezkuntzako Programako ingeleseko datuek barne hartzen dituzte irakasleak egiaztatzeari eta unibertsitate-programari buruzko datuak.

Hori guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 26an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## Galdera, Nastat-en galdetegiari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nastat-en galdetegiari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 30eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak Nastati buruzko zenbait galdera egin ditu (10-20/PES-00268), Nafarroako Parlamentuko Erregistroan 4035 irteera-zenbakia dutenak, 2020ko urriaren 21ekoa. Nafarroako Estatistika Institutuko zuzendariak igorritako erantzuna atxikirik bidaltzen dizu Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 19an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Hona hemen Nafarroako Gorteetako kide Iñaki Iriarte López jaunak egindako 00268 galdera parlamentarioa dela-eta jakinarazi beharrekoa:

1) Igorritako galdetegian askoz galdera gehiago daude Nastat-ek kargatu duen Excelean bildutakoak baino; zergatik ez dira argitaratu? Mesez, igorri al bait lasterren.

Estatistika-produktu ororen informazio-hautaketa bat egiten da, zeina argitaratuko baita hedapen-irizpideetan eta eskaera ohikoenetan oinarrituta. Gainerako informazioak datu-bilketa edo datu horien tratamendua egituratzeko balio du, baita balizko eskaerei erantzuteko ere.

Eskaerek zehaztu behar dute zer aldagai eta zer gurutzaketa behar diren planteatzen den helburua betetzeko, baina betiere proporzionaltasun-irizpide bat egon behar da.

2) 2020ko uztailaren 2an emandako erantzunean Nastat-eko zuzendariak ez zituen fitxategi informatikoak eman nahi, honako hau adierazita: “datu indibidualen fitxategiak ezin dira

eman, bakarrik agregatuak, ez badute aukerarik ematen [identifikatzeko], zuzenean edo zeharka, aipatu arauketak babestutako pertsona fisikoak”. Baina Eustat-ek bere webgunean kargatu egiten ditu Bizi-baldintzei buruzko bere Inkestetako mikrodatuak. Horrek esan nahi du ahalbidetuko litzatekeela inkestatutako pertsonak zuzenean edo zeharka identifikatzea?

Sekretu estatistikoa Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean dago araututa, 19. artikuluan, eta honela dio: “Pertsona fisikoei edo pertsona juridikoei buruzko datu babestuak dira interesdunak zuzenean identifikatzeko aukera ematen dutenak edo, beren egitura, edukia edo desagregazio-maila dela-eta, zeharka identifikatzeko aukera ematen dutenak”. Interpretazio juridikoa —Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2020ko irailaren 14an eskatuta emandako txostenak (16. txostena) berretsi zuena— honako hau da: mikrodatuen fitxategiaren desagregazio-mailak, datu pertsonalik ez izan arren, zeharkako identifikazio hori ahalbidetuko luke. 11/1997 Foru Lege berean jasotako salbuespenetan, datuak helburu zientifikoetarako lagatzea jasotzen da.

Bestela, zure beharrak konpontzeko balio badu ere, fitxategi bat proposatuko dizugu, bildutako informazio guztia jasoko duena, parte-hartzaileak zuzenean edo zeharka identifikatzen dituen izan ezik. Horretarako, baliteke eransketa-aren bat egin behar izatea, eta behar bezala dokumentatuta geratuko litzateke.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak, laugarren kapituluaren, estatistika-sekretua beste modu batera arautzen du.

3) Enpresak igorritako eskaintza teknikoak 33. orrialdean bere adierazten du bere sistemak “0 akats duela datuen grabaketan” duela. Nola gertatu ahal izan zen 8. taulako akatsa, zuzendari jaunak 2020ko urriaren 5ean aitortzen duen hori? Azalpenak eskatu al zaizkio enpresari?

Aitortutako akatsa ez da datuak grabatzeko akatsa, datuen ustiapenarena baizik.

4) Nik egindako PEI 559/2020 informazio-eskariaren p. puntuan galdetzen nizun bi proiektzio egiteko aplikatu den formulari buruz. Zure erantzunean honako hau zehazten didazu: “Zehaztutako aldea gertatzen da igogailuen aplikazioagatik. Igogailuek behaketan pisua eraldatzen dute, iker-

tzen den populazioaren banaketaren ariora. 2018ko bizi-baldintzei buruzko inkesta sozialaren emaitzen haztapena aplikatu da, kalibratze aldera eskuratu den lagina, 2018an Nafarroako erroldako 15 urteko edo hortik gorako biztanleriaren arabera, geografiari (euskara zerbitzu teknikoaren zonaldeak), sexuari eta adin-taldeei begira. Horregatik, eskuratutako galdera bakoitza haztatu da ateratako tarte bakoitzak ordezkatzeko duen biztanleriaren proportzioan. Hori ohikoa da estatistika guztietan. Adibidez, Biztanleria Aktiboaren Inkestari begiratzeko badiozu, ikusiko duzu igogailuek oso hein zabala dutela. Azken hiruhilekoan, adibidez, behaketa batzutan 15 pertsona ordezkatzeko dira eta beste batzutan 676.” Behaketak haztatu egiten zirela, hori garbi zegoen. Baina, egiaztatu ahalko duzunez, nire galderan eskatzen zen aipatu proiektioetara iristeko erabili zen formula, eta haren justifikazioa ere bai. Mesedez, zehaztasun handienarekin erantzun hurrengoan.

Erabilitako formula. Justifikazioaren arabera, laginaren esleipena ez da unibertsoarekiko proportzionala, eta, beraz, behaketa bakoitzari biztanleengan duen pisua itzuli behar zaio:

$$F_h^{s,e} = \frac{N_h^{s,e}}{n_h^{s,e}}$$

Bertan:

h: lurralde-geruza adierazten du, eta 1etik 16ra bitarteko balio osoak hartzen ditu

s: elkarrizketatutako pertsonaren sexua adierazten du eta gizonaren edo emakumearen balioak hartzen ditu

e: adin-taldea adierazten du, eta balio osoak hartzen ditu: 15-29 urte, 30-44 urte, 45-59 urte, 60-74 urte, 75 urte eta gehiago.

5) Alde handia ikusten da Euskarabideak euskalduntzat jotzen dituen pertsonen kopurua (75.810) eta “euskara hein batean ezagutu baina ongi hitz egitera iristen direnak” (42.994 pertsona) batuz gero ateratzen den kopuruaren eta Nastaten arabera “euskara hein batean ezagutzen” dutenen artean (152.573). Aldea, hain zuzen, 33.769 pertsonakoa da. Egia da Euskarabidearen zenbakiak 16 urtetik goitikoei buruzkoak direla eta Nastatenak, ordea, 15 urtetik goitikoak, baina azken horiek 9104 pertsona baino ez dira; beraz, bazter utzi behar dugu zenbakien desadostasuna etortzea unibertsoa definitzeko irizpide desberdin horietatik. Horiek horrela, ondorioztatu behar dugu Nastatek eta Euskarabideak irizpide desberdinak erabili dituztela “euskara hein batean ezagutu baina ongi hitz egitera iristen ez direnak” kontuan hartzerakoan. Zein izan dira irizpide horiek eta zer justifikazioarekin? Zein izan dira Nastatenak eta zer justifikazioarekin?

Irizpideek hedapen-eskema desberdin bati erantzuten diote. Nastatek modu orokorragoan argitaratzen du informazioa; Euskarabideak, berriz, soziolinguistikako azterlanei hobeki egokitzen zaien informazioaren tratamendua egiten du. Zehazki, Nastaten hedapenean argitaratutako 152.573 zenbakiak hizkuntza 'ongi', 'nahiko ongi' edo 'zerbait' ulertzen duten pertsonen kopurua deskribatzen du. Euskarabidearen irizpideak bat datoz soziolinguistika azterlanekin, eta gogoeta desberdinak dakartzate. Nastatek ez ditu kategoria horiek erabiltzen; aitzitik, informazioaren hedapen orokorra egiten du, eta ez hain espezializatu.

Población de 15 y más años, según conocimientos de euskera clasificada por variables sociodemográficas

DATOS ABSOLUTOS	Total	ENTIENDO...					HABLO...			
		Bien	Bastante bien	Algo	Sólo palabras	Nada	Bien	Bastante bien	Algo	Sólo palabras
Total	546.333	70.520	23.220	57.080	170.017	225.495	62.703	15.515	41.223	138.711

LEO...					ESCRIBO...					Habla, escribe, lee o entiende la lengua 'bien', 'bastante bien' o 'algo'
Bien	Bastante bien	Algo	Sólo palabras	Nada	Bien	Bastante bien	Algo	Sólo palabras	Nada	
61.612	22.926	34.089	69.614	358.093	55.692	16.131	34.761	60.541	379.208	152.573

Euskarazko hizkuntza-gaitasunen eraikuntza:

“Hitz egitea”, “Ulertzea” eta “erraztasun handiagoz hitz egiten duen hizkuntza” aldagaien bidez eraikitzen da.

- Hiztunak euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten badu eta erraztasun handiagoz hitz egiten duen hizkuntza euskara bada, Euskara Elebiduna da.

- Hiztunak euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten badu eta errazen hitz egiten dituen hizkuntzak gaztelania eta euskara berdin' badira, Oreka Elebiduna da.

- Hiztunak euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten badu eta erraztasun handiagoz hitz egiten duen hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntza bat bada, Erudizio Elebiduna da.

- Euskaraz zerbait hitz egiten badu, Hartzaille Elebiduna da.

- Hiztunak ez badu euskaraz ezer hitz egiten, edo hitzak bakarrik baldin badakizki eta zerbait ulertzen badu, Gazteleraduna da.

- ▣ Euskara Elebiduna, Oreka Elebiduna eta Erudizio Elebiduna Euskalduna da

- ▣ Hartzaille elebiduna Euskaldun Hartzaillea da.

- ▣ Gazteleraduna Ez-euskalduna da.

6) Nafarroari buruzko 2018ko datu soziolinguistikoen 39. orrialdean esaten da euskaldunen % 35,9k ingelesaren eta/edo frantsesaren ezagutza duela; erdaldunen artean % 22,8 izanen lirateke. Baina zuzendariak igorritako Excel tauletan ikusten da lehenbiziko portzentajea askoz ere altuagoa izan beharko litzatekeela (berriro ere Euskarabideak bakarrik 16 urtetik goitikoak kontuan hartzeak ez luke horren jauzi handia justifikatuko). Euskaldunei dagokienez, TB taulan orobat-hori ere zuzendariak igorria, erdaldunek ingelesa ezagutzeari buruzkoa- agertzen den portzentajea Euskarabideak ematen duen % 22,8 hori baino askoz handiagoa da. Nola azalduko litzateke hori? Euskarabidearen datuak akastunak dira edo Nastaten datuak?

Gai hori dela-eta, PES-00255 erantzunera jotzea gomendatzen dizugu.

7) Zein dira behaketak eta frantsesaren ezagutzaren zenbaki absolutua euskara hein batean ezagutu baina hitz egiten ez dutenen artean? Mesedez, datuak eman, adinaren, ikasketen, eskualdeen, Lurralde Antolamenduko Planen arabera eremuen eta hizkuntza eremuaren arabera.

## Emaitzak (T1)

8) Azken informazio hori igorri bitartean, eman dizkidazun datuak oinarri hartuta prestatu ditudan kalkuluaren arabera, euskara hein batean ezagutu baina hitz egiten ez duten 15-29 urteko gazteen portzentajea erabat baxua da, % 17,9 ingurukoa. Alegia, Th taulan gazte euskaldunei egozten zaientzaren erdia baino gutxiago eta Te taulan gazte erdaldunei egotzitakoaren ia erdia. Ziur zaude jauzi hori ez datorrela lagina hautatzerakoan izandako akatsen batetik?

Jauzi horren arrazoia da estimazioan laginakats handia dagoela, lagin-behaketaren kopurua txikia delako eta zifra zuhurtiaz interpretatu behar delako. Nolanahi ere, laginaren hautaketa populazio-esparruan eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta egin da; izan ere, esparru horretan ez dago hizkuntzen ezagutzari lotutako inolako ezagarririk, bizilekutik harago, eta bizilekua, hain zuzen, azterlanaren beharren arabera estratifikazioan sartu da.

9) Nastat-eko zuzendariak igorritako Tf taulan frantsesa hein batean ezagutzen duten 15-29 urteko gazte erdaldunei buruzko behaketak % 29,78 dira, baina zenbakiaren igoera % 30,7raino iristen da. Alegia, puntu batetik gertu dagoen gorapena. Baina Th taulan frantsesa ezagutzen duten 15-29 urteko gazte euskaldunen kasuari begiratzen badiogu, behaketaren eta proiektioaren arteko jauzia 12,6 puntukoa da. Euskaldunen artean ingelesa jakiteari buruzko taulan ez da era horretako inolako haztapenik ikusten. Gertaera horren azalpen zehatza eman ahalko zenidake?

Lagina prestatzen denean, erreferentziatzeko informazio osagarria hartzen da. Informazio hori funtsezkotzat jotzen da azterketaren helburuetan oinarrituta, eta mugatua da galdetegian jasotako aldagai guztiei dagokienez. Kasu honetan, ingelesa eta frantsesa jakitea ez da laginketa-diseinuan aurrez jasotako informazioa.

Horrek eta ingelesaren ezagutza biztanlerian oso zabalduta egoteak frantsesaren ezagutza murriztagoa den bitartean, zuk egiaztatzen duzuna azal dezakete.

10) Laginean ikusten da euskaldunek neurritz gainezko ordezkartza dutela adin-tarte guztietan, ikasketa maila guztietan eta eskualde guztietan, salbu eta Iruñerrian. Gainera, modu globalean ere euskaldunek neurritz gainezko ordezkartza izan du. Zehazki, pertsona bat elkarriketatu da 74,7 euskaldun bakoitzeko eta 98,6 erdaldun bakoitzeko. Zer haztapen motarekin konpentsatu da lerratze hori Nastat-ek kargatu dituen Excel tauletan bildutako galderak?

Ez da lerratze edo alborapen bat, baizik eta azterlanaren beharren arabera zehaztutako lagin-esleipena, non konpromiso-esleipen bat egitea erabaki baitzen, lurralde-geruza bakoitzean 300 unitateko gutxieneko kopurua ziurtatuz. 4.800 unitate konprometituta zeuden bide horretatik, eta gainerako 5.200 unitateak biztanleriaren pisuaren erroaren proportzioan banatu ziren (udalerrri bakoitzeko erroa kalkulatuta). 4. galderari emandako erantzunean aipatutako goratze-faktoreek alderdi hori konpontzen dute.

11) Nastat-eko zuzendariaren ustez laginaren prestaketa egokia izan al zen edo uste al du akastuna izan zela?

Lagina azterketaren helburuei erantzuteko egin zen. Helburu horietarako, egokitzat jotzen dugu lagina.

12) Nastat-eko zuzendariaren ustez euskaldunek adin-tarte guztietan neurritz gainezko ordezkartza edukitzea zori kontua al da?

Lagina populazio-esparruan eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta egin da; izan ere, esparru horretan ez dago hizkuntzen ezagutzari lotutako inolako ezaugarririk, bizilekutik harago, eta bizilekua, hain zuzen, azterlanaren beharren araberrako estratifikazioan sartu da

13) Mesedez, igor iezazkidazu ingelesa ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten erdaldunen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera.

Emaizak (T2)

14) Mesedez, igor iezazkidazu frantsesa ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten euskaldunen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera..

Emaizak (T3)

15) Mesedez, igor iezazkidazu ingelesa ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten erdaldunen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera.

Emaizak (T4)

16) Mesedez, igor iezazkidazu euskara hein batean ezagutu bai baina ongi edo nahiko ongi hitz egiten ez duten eta ingelesa ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutenen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera.

Emaizak (T5)

17) Mesedez, igor iezazkidazu euskara hein batean ezagutu bai baina ongi edo nahiko ongi hitz egiten ez dutenen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera, haien ingelesaren maila, eta modu bereizita, frantsesaren maila egiaztatzen duen titulazioari jarraikiz.

Emaizak (T6)

18) Mesedez, igor iezazkidazu euskara ongi edo oso ongi hitz egiten ez dutenen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera, haien ingelesaren maila, eta modu bereizita, frantsesaren maila egiaztatzen duen titulazioari jarraikiz.

Biztanleria “euskalduna” PEI559-n definitu zen bezala, euskaraz “ongi” edo “nahiko ongi” hitz egitea kategorien bidez, eta biztanleria “ez-euskalduna” euskaraz ez “ongi”, ez “nahiko ongi” hitz egitea kategorien bidez definitua, kontraesanean dago eskari honekin. Ezin da elkarren baztertzailak diren bi kategoriako biztanleria zehaztu.

19) Mesedez, igor iezazkidazu euskara ez dakitenen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera, haien ingelesaren maila, eta modu bereizita, frantsesaren maila egiaztatzen duen titulazioari jarraikiz.

Emaizak (T7)

Iruñean, 2020ko azaroaren 19an

Nafarroako Estatistika Institutuko zuzendaria:  
Pablo Cebrián Jiménez

- T1 Euskaldunak ez diren 15 urteko edo gehiagoko biztanleak, euskaraz badakitenak, frantsesaren ezagutzaren arabera  
 T2 Ingelesezi ongi edo nahiko ongi hitz egiten duen 15 urteko edo gehiagoko biztanleria ez-euskalduna  
 T3 Frantsesez ongi edo nahiko ongi hitz egiten duen 15 urteko edo gehiagoko biztanleria euskalduna  
 T4 Euskaraz ez dakiten eta ingelesez ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten 15 urteko edo gehiagoko biztanleak  
 T5 Euskaraz badakiten baina ongi edo nahiko ongi hitz egiten ez duten eta ingelesez ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten 15 urteko edo gehiagoko biztanleak  
 T6 Euskaraz badakiten baina ongi edo nahiko ongi hitz egiten ez duten 15 urteko edo gehiagoko biztanleak, ingelesaren edo frantsesaren ezagutza-maila egiaztatzeko titulazioaren arabera  
 T7 Euskaraz ez dakiten 15 urteko edo gehiagoko biztanleak, ingelesaren edo frantsesaren ezagutza-maila egiaztatzeko titulazioaren arabera

* Metodologia
Euskaraz jakitea = ongi, nahiko ongi edo zerbait hitz egiten du, ulertzen du, idazten edo irakurtzen du.
Ingelesezi jakitea = ongi, nahiko ongi edo zerbait hitz egiten du, ulertzen du, idazten edo irakurtzen du.
Frantsesez jakitea = ongi, nahiko ongi edo zerbait hitz egiten du, ulertzen du, idazten edo irakurtzen du.
Euskaraz hitz egin = ongi edo nahiko ongi hitz egiten du
Ingelesezi hitz egin = ongi edo nahiko ongi hitz egiten du
Frantsesez hitz egin = ongi edo nahiko ongi hitz egiten du

Euskaldunak ez diren 15 urteko edo gehiagoko biztanleak, euskaraz badakitenak, frantsesaren ezagutzaren arabera

Datu absolutuak		Frantsesez jakitea	Frantsesez ez jakitea
Guztira		30.289	44.066
Adin-taldeak	15 eta 29 urte bitarte	2670	12322
	30 eta 44 urte bitarte	8880	15613
	45 eta 59 urte bitarte	13923	9412
	60 urte edo gehiago	4816	6719
Ikasketen maila	Bigarren hezkuntzako 1. etapa eta hortik behera	7812	13211
	Bigarren hezkuntzako 2. etapa eta bigarren hezkuntzaren ondorengoa	8032	14668
	Goi mailako hezkuntza	14445	16187
Hizkuntza-eremua, Euskararen Legea	Euskalduna	2929	5384
	Mistoa	24102	31732
	Ez-euskalduna	3258	6949
Lurralde Antolamenduko Planen arabeko eremuak	1 Nafarroa Atlantikoa	2289	3915
	2 Pirinioak	1003	1035
	3 Erdialdeko Lurraldea	22598	28129
	4 Erdigunea	2039	6831
	5 Ebroko Ardatza	2361	4155
Eskualdea	Iruñerria	22153	27079
	Baztan - Bidasoa	1133	659
	Zangozerrria eta Erdialdea	1279	2656
	Estellerria	1299	5246
	Larraun-Leitzaldea	406	773
	Pirinioak	618	568
	Pirinioaurrea	463	685
	Erribera eta Erriberagoiena	1761	2952
	Sakana	751	2938
Izarbeibar-Novenera	428	508	

<b>Oharrak</b>		Frantsesez jakitea	Frantsesez ez jakitea
Guztira		321	560
Adin-taldeak	15 eta 29 urte bitarte	30	137
	30 eta 44 urte bitarte	79	177
	45 eta 59 urte bitarte	149	154
	60 urte edo gehiago	63	92
Ikasketen maila	Bigarren hezkuntzako 1. etapa eta hortik behera	85	187
	Bigarren hezkuntzako 2. etapa eta bigarren hezkuntzaren ondorengoa	86	161
	Goi mailako hezkuntza	150	212
Hizkuntza-eremua, Euskararen Legea	Euskalduna	87	136
	Mistoa	196	347
	Ez-euskalduna	38	77
Lurralde Antolamenduko Planen arabeko eremuak	1 Nafarroa Atlantikoa	39	75
	2 Pirinioak	68	76
	3 Erdialdeko Lurraldea	148	230
	4 Erdigunea	40	134
	5 Ebroko Ardatza	26	45
Eskualdea	Iruñerria	137	209
	Baztan - Bidasoa	18	11
	Zangozerrria eta Erdialdea	18	45
	Estellerrria	24	84
	Larraun-Leitzaldea	6	14
	Pirinioak	52	48
	Pirinioaurrea	17	30
	Erribera eta Erriberagoiena	19	32
	Sakana	15	58
	Izarbeibar-Novenera	15	29

Ingelesez ongi edo nahiko ongi hitz egiten duen 15 urteko edo gehiagoko biztanleria ez-euskalduna

		Zenbaki absolutuak	Oharrak
Guztira		95.470	918
Adin-taldeak	15 eta 29 urte bitarte	43322	374
	30 eta 44 urte bitarte	36475	346
	45 eta 59 urte bitarte	13915	168
	60 urte edo gehiago	1757	30
Hizkuntza-eremua, Euskararen Legea	Euskalduna	2593	85
	Mistoa	70539	591
	Ez-euskalduna	22337	242
Lurralde Antolamenduko Planen arabeko eremuak	1 Nafarroa Atlantikoa	1664	30
	2 Pirinioak	678	45
	3 Erdialdeko Lurraldea	66410	492
	4 Erdigunea	8301	156
	5 Ebroko Ardatza	18417	195
Eskualdea	Iruñerria	65706	470
	Baztan - Bidasoa	418	7
	Zangozerrria eta Erdialdea	4561	65
	Estellerrria	7092	106
	Larraun-Leitzaldea	186	3
	Pirinioak	329	28
	Pirinioaurrea	443	18
	Erribera eta Erriberagoiena	14559	154
	Sakana	1191	22
Izarbeibar-Novenera	983	45	



Frantsesez ongi edo nahiko ongi hitz egiten duen 15 urteko edo gehiagoko biztanleria euskalduna

		Zenbaki absolutuak	Oharrak
Guztira		9.172	113
Adin-taldeak	15 eta 29 urte bitarte	2938	29
	30 eta 44 urte bitarte	2624	29
	45 eta 59 urte bitarte	2694	39
	60 urte edo gehiago	916	16
Hizkuntza- eremua, Euskararen Legea	Euskalduna	2992	67
	Mistoa	5301	36
	Ez-euskalduna	878	10
Lurralde Antolamendu ko Planen araberako eremuak	1 Nafarroa Atlantikoa	2501	43
	2 Pirinioak	320	24
	3 Erdialdeko Lurraldea	5242	31
	4 Erdigunea	763	11
	5 Ebroko Ardatza	346	4
Eskualdea	Iruñerria	5019	28
	Baztan - Bidasoa	1967	33
	Zangozerria	141	2
	Estellerria /	710	10
	Larraun-Leitzaldea	155	3
	Pirinioak	309	23
	Pirinioaurrea	99	2
	Erribera eta	258	3
	Sakana	424	8
Izarbeibar-Novenera /	90	1	

Euskaraz ez dakiten eta ingelesez ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten 15 urteko edo gehiagoko biztanleak

		Zenbaki absolutuak	Oharrak
Guztira		75.177	698
Adin-taldeak	15 eta 29 urte bitarte	34131	273
	30 eta 44 urte bitarte	27793	275
	45 eta 59 urte bitarte	11831	127
	60 urte edo gehiago	1423	23
Hizkuntza-eremua, Euskararen Legea	Euskalduna	1166	44
	Mistoa	54956	448
	Ez-euskalduna	19056	206
Lurralde Antolamenduko Planen arabeko eremuak	1 Nafarroa Atlantikoa	689	12
	2 Pirinioak	324	21
	3 Erdialdeko Lurraldea	52321	389
	4 Erdigunea	5610	105
	5 Ebroko Ardatza	16232	171
Eskualdea	Iruñerria	51928	378
	Baztan - Bidasoa	193	3
	Zangozerrria eta Erdialdea	3151	43
	Estellerria	4999	76
	Larraun-Leitzaldea	0	0
	Pirinioak	148	13
	Pirinioaurrea	277	9
	Erribera eta Erriberagoiena	13186	139
	Sakana	496	9
	Izarbeibar-Novenera	800	28

Euskaraz badakiten baina ongi edo nahiko ongi hitz egiten ez duten eta ingelesez ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten 15 urteko edo gehiagoko biztanleak

		Zenbaki absolutuak	Oharrak
Guztira		20.292	220
Adin-taldeak	15 eta 29 urte bitarte	9191	101
	30 eta 44 urte bitarte	8682	71
	45 eta 59 urte bitarte	2085	41
	60 urte edo gehiago	334	7
Hizkuntza-eremua, Euskararen Legea	Euskalduna	1428	41
	Mistoa	15583	143
	Ez-euskalduna	3282	36
Lurralde Antolamenduko Planen araberrako eremuak	1 Nafarroa Atlantikoa	975	18
	2 Pirinioak	353	24
	3 Erdialdeko Lurraldea	14088	103
	4 Erdigunea	2691	51
	5 Ebroko Ardatza	2185	24
Eskualdea	Iruñerria	13778	92
	Baztan - Bidasoa	225	4
	Zangozerrria eta Erdialdea	1410	22
	Estellerria	2093	30
	Larraun-Leitzaldea	186	3
	Pirinioak	181	15
	Pirinioaurrea	166	9
	Erribera eta Erriberagoiena	1373	15
	Sakana	695	13
Izarbeibar-Novenera	183	17	

Euskaraz badakiten baina ongi edo nahiko ongi hitz egiten ez duten 15 urteko edo gehiagoko biztanleak, ingelesaren edo frantsesaren ezagutza-maila egiaztatzeko titulazioaren arabera

Zenbaki absolutuak		Ingeleseko ziurtagiriak				Frantsesezko ziurtagiriak			
		Bat bera ere ez	A1–A2 maila	B2–B2 maila	C1–C2 maila	Bat bera ere ez	A1–A2 maila	B1–B2 maila	C1–C2 maila
Guztira		33.452	2.029	7.307	2.721	26.082	1.855	1.927	425
Adin–taldeak	15 eta 29 urte bitarte	7.905	929	4.125	866	1.461	457	753	–
	30 eta 44 urte bitarte	15.776	243	2.465	1.516	7.218	584	919	160
	45 eta 59 urte bitarte	7.741	858	717	303	12.730	762	256	176
	60 urte edo gehiago	2.029	–	–	36	4.674	53	–	90
Hizkuntza–eremua	Euskalduna	3.573	56	327	104	2.787	131	10	–
	Mistoa	24.373	1.657	6.249	2.250	20.582	1.534	1.739	247
	Ez–euskalduna	5.506	316	732	367	2.713	190	178	178
Lurralde Antolamenduko Planen arabeko eremuak	1 Nafarroa Atlantikoa	2.733	–	208	55	2.191	98	–	–
	2 Pirinioak	730	11	53	79	963	19	21	–
	3 Erdialdeko Lurraldea	22.277	1.539	5.236	2.118	19.371	1.382	1.677	167
	4 Erdialdea	4.210	282	1.363	102	1.741	167	51	80
	5 Ebroko Ardatza	3.501	197	447	367	1.816	190	178	178
Eskualdea	Iruñerria	21.762	1.529	4.971	2.118	18.951	1.365	1.671	167
	Baztan–Bidasoa eta Larraun Leitzaldea	1.150	–	100	55	1.538	–	–	–
	Zangozerrria eta Erdialdea	1.971	65	535	85	1.146	53	–	80
	Estellerria	3.242	189	992	95	1.056	114	129	–
	Pirinioak	395	–	38	60	586	10	21	–
	Pirinioaurrea	164	11	192	19	454	9	–	–
	Erribera eta Erriberagoiena	2.499	197	257	272	1.311	190	83	178
	Sakana	1.820	–	153	–	653	98	–	–
	Izarbeibar–Novenera	449	38	67	17	387	17	24	–

Oharrak		Ingeleseko ziurtagiriak				Frantseseko ziurtagiriak			
		Bat bera ere ez	A1–A2 maila	B1–B2 maila	C1–C2 maila	Bat bera ere ez	A1–A2 maila	B1–B2 maila	C1–C2 maila
Guztira		388	22	74	29	286	16	14	5
Adin–taldeak	15 eta 29 urte bitarte	94	8	42	11	20	5	5	–
	30 eta 44 urte bitarte	158	6	19	9	70	3	4	2
	45 eta 59 urte bitarte	109	8	13	8	135	7	5	2
	60 urte edo gehiago	27	–	–	1	61	1	–	1
Hizkuntza–eremua	Euskalduna	89	2	11	5	81	5	1	–
	Mistoa	239	16	55	20	173	9	11	3
	Ez–euskalduna	60	4	8	4	32	2	2	2
Lurralde Antolamenduko Planen araberako eremuak	1 Nafarroa Atlantikoa	49	–	4	1	37	2	–	–
	2 Pirinioak	49	1	4	7	64	2	2	–
	3 Erdialdeko Lurraldea	177	11	36	14	130	8	8	2
	4 Erdialdea	75	8	25	3	35	2	2	1
	5 Ebroko Ardatza	38	2	5	4	20	2	2	2
Eskualdea	Iruñerria	164	10	30	14	121	7	7	2
	Baztan–Bidasoa eta Larraun Leitzaldea	19	–	2	1	24	–	–	–
	Zangozerria eta Erdialdea	31	2	8	2	16	1	–	1
	Estellerria	49	3	16	1	21	1	2	–
	Pirinioak	33	–	3	5	49	1	2	–
	Pirinioaurrea	14	1	3	2	16	1	–	–
	Erribera eta Erriberagoiena	27	2	3	3	14	2	1	2
	Sakana	34	–	3	–	13	2	–	–
	Izarbeibar–Novenera	17	4	6	1	12	1	2	–

Euskaraz ez dakiten 15 urteko edo gehiagoko biztanleak, ingelesaren edo frantsesaren ezagutza-maila egiaztatzeko titulazioaren arabera

Zenbaki absolutuak		Ingeleseko ziurtagiriak				Frantsesezko ziurtagiriak			
		Bat bera ere ez	A1-A2 maila	B2-B2 maila	C1-C2 maila	Bat bera ere ez	A1-A2 maila	B1-B2 maila	C1-C2 maila
Guztira		127.937	4.929	31.239	10.913	88.905	4.934	8.544	4.695
Adin-taldeak	15 eta 29 urte bitarte	29.924	1.154	14.760	5.208	12.377	2.687	3.512	1.357
	30 eta 44 urte bitarte	49.114	2.093	11.809	4.236	23.498	1.091	2.332	1.025
	45 eta 59 urte bitarte	34.917	1.563	4.345	1.208	26.140	981	1.309	1.659
	60 urte edo gehiago	13.981	118	324	260	26.891	174	1.391	655
Hizkuntza-eremua	Euskalduna	2.595	106	351	23	2.662	22	45	32
	Mistoa	81.885	2.594	23.552	9.718	62.233	2.887	7.057	4.302
	Ez-euskalduna	43.457	2.229	7.335	1.172	24.011	2.025	1.442	361
Lurralde Antolamenduko Planen araberako eremuak	1 Nafarroa Atlantikoa	1.800	49	154	-	2.015	-	-	-
	2 Pirinioak	755	11	30	30	756	-	52	28
	3 Erdialdeko Lurraldea	75.811	2.462	22.912	9.600	57.759	2.843	6.896	4.134
	4 Erdialdea	13.219	432	2.110	225	8.086	65	269	172
	5 Ebroko Ardatza	36.352	1.975	6.033	1.058	20.289	2.025	1.327	361
Eskualdea	Iruñerria	73.882	2.372	22.762	9.593	56.802	2.843	6.767	4.134
	Baztan-Bidasoa eta Larraun Leitzaldea	539	-	-	-	1.041	-	-	-
	Zangozeria eta Erdialdea	7.383	264	1.355	-	4.907	54	184	90
	Estellerria	12.052	524	1.635	104	7.022	-	74	71
	Pirinioak	275	11	11	30	491	-	33	17
	Pirinioaurrea	707	80	19	-	366	-	19	11
	Erribera eta Erriberagoiena	28.651	1.608	4.910	1.058	15.642	2.025	1.327	361
	Sakana	1.325	49	154	-	1.038	-	-	-
	Izarbeibar-Novenera	3.122	22	393	128	1.596	12	139	12

Oharrak		Ingeleseko ziurtagiriak				Frantsesezko ziurtagiriak			
		Bat bera ere ez	A1-A2 maila	B1-B2 maila	C1-C2 maila	Bat bera ere ez	A1-A2 maila	B1-B2 maila	C1-C2 maila
Guztira		1.254	61	262	82	840	46	75	33
Adin-taldeak	15 eta 29 urte bitarte	258	14	125	29	108	21	32	5
	30 eta 44 urte bitarte	512	27	93	35	222	13	21	7
	45 eta 59 urte bitarte	392	18	38	14	311	10	18	13
	60 urte edo gehiago	92	2	6	4	199	2	4	8
Hizkuntza-eremua	Euskalduna	83	6	12	2	80	2	4	3
	Mistoa	696	31	171	67	492	22	55	26
	Ez-euskalduna	475	24	79	13	268	22	16	4
Lurralde Antolamenduko Planen araberako eremuak	1 Nafarroa Atlantikoa	32	1	3	-	35	-	-	-
	2 Pirinioak	43	1	3	3	57	-	5	3
	3 Erdialdeko Lurraldea	554	29	151	62	378	22	50	22
	4 Erdialdea	235	9	41	5	147	2	6	4
	5 Ebroko Ardatza	390	21	64	12	223	22	14	4
Eskualdea	Iruñerria	520	27	148	61	355	22	48	22
	Baztan-Bidasoa eta Larraun Leitzaldea	9	-	-	-	16	-	-	-
	Zangozeria eta Erdialdea	103	5	18	-	69	1	3	1
	Estellerrria	173	7	28	3	111	-	2	2
	Pirinioak	23	1	1	3	41	-	3	2
	Pirinioaurrea	22	1	2	-	17	-	2	1
	Erribera eta Erriberagoiena	306	17	52	12	171	22	14	4
	Sakana	24	1	3	-	20	-	-	-
	Izarbeibar-Novenera	74	2	10	3	40	1	3	1

## **Galdera, transferentzia arrunten aparteko funtsa ordaintzeari buruzkoa, COVID-19ak 2020ko ekitaldiko udal aurrekontuetan duen inpaktua apaltzeko.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, transferentzia arrunten aparteko funtsa ordaintzeari buruzkoa, COVID-19ak 2020ko ekitaldiko udal aurrekontuetan duen inpaktua apaltzeko. Galdera 2020ko urriaren 30eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin dio (10-20/PES-00269) Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari. Bertan, honako galdera hauek egiten ditu:

1. Lurralde Kohesiorako Departamentuak ordaindu al dizkie udalei funtsean aurreikusitako zenbatekoak? Noiz? Ordaintzeko ebazpenaren edo ebazpenen kopia eskatzen da.

2. Lurralde Kohesiorako Departamentuak kontrolatu al du 25 milioi eurotik zenbat bideratu den azkenean egoitzetara? Hala bada, eskatzen da adieraz daitezen kopurua eta zein toki erakunde bideratu duten diru hori egoitzetara.

3. Lurralde Kohesiorako Departamentuak jakinarazi al dizkio Eskubide Sozialetako Departamentuari zein diren udalei, egoitzetan erabil ditzaten, bideratutako kopuruak? Hala baldin bada jakinarazpen horren kopia jaso nahi dugu.

Lehenengo gaiari dagokionez, erantzun behar dizut Lurralde Kohesiorako Departamentuak funtsean aurreikusitako zenbatekoak ordaindu dizkiela udalei, ondoren zehazten diren egunetan. Ordaintzeko ebazpenen kopia eransten dizut.

- 10,5 milioi euro 2020ko abuztuaren 3an: inpaktu funtsak

- 13,5 milioi euro 2020ko irailaren 23an: sustapen funtsa

- Milioi bat euro hiri-garraiorako: ordainketa izapidetzen ari da.

Bigarren gaiari dagokionez, gogorarazi behar da 25 milioi euroko funtsa hiru funtsetan banatuta dagoela: 10,5 milioi euro udal aurrekontuetako inpaktu arrunta arintzeko, 13,5 milioi euro tokiko ekonomia sustatzeko inbertsioetarako, eta milioi 1 euro COVID-19ak hiri-garraioan daukan inpaktua arintzeko.

10,5 milioi euroko funtsa pandemiak udal-aurrekontuetan, bai gastuak handitzeagatik, bai diru-sarrerak galtzeagatik, eragiten dituen ondorioak arintzeko beharraren ondorioz sortu da. Pandemiaren hasierako fase kritikoan azterketa eta ebaluazio-lan handia eginez, inkestak egin zitzaizkien toki-entitateei, datu eguneratuak lortzeko. Horri eta udal-zerbitzuen kostuen analisiari esker, inpaktu ekonomikoa kuantifikatzeko eta horretarako sortutako funtsa banatzeko formulak finkatzeko proposamena egin ahal izan da.

Inkesten azterketatik, ekonomikoki eragiten ari diren udal zerbitzu nagusiak eta eragiten duten aurrekontu-inpaktuaren proportzioa identifikatu dira. Helburua da ahalik eta objektiboena den formula ezartzea funtsa banatzeko, baina horrek ez du esan nahi ondoriozko zifrak kasu bakoitzean errealak direnik nahitaez, baizik eta banaketa-formulan udal-erri bakoitzari esleitutako kopuruen proportzio objektibo bat mantentzen dela.

Hortik abiatuta finkatzen dira zortzi banaketa-irizpideak, eta bakoitzari banatu beharreko zenbateko bat ematen zaio, eragin handiena duten zerbitzuak direlako eta formularako banaketa-indize batzuk dituztelako. Eta udal bakoitzak zerbitzu horiek ezarrita dituen heinean, funtsaren banaketa orokorra izanen da. Horrek ez du esan nahi ukitutako zerbitzu gehiago ez dagoenik, baizik eta zerbitzu horiek hartu direla garrantziaren arabera ko banaketa-irizpidetat.

Ateratzen den zenbatekoa formula bat aplikatzearen ondorioa da. Formula horrek erakunde bakoitzari zenbateko orokor bat banatzen dio, aurrekontuetan COVID-19aren inpaktua arintzeko. Ez da zehaztutako zerbitzuen finantzazio zehatzaren kontu banakatu bat, baizik eta udal bakoitzean eragin oso desberdinak izan ditzakeen inpaktu ekonomikoa bat arintzeko funts bat bana-



tzeko irizpide bat, are banaketa-aldagaietan kon-tuan hartu ez diren beste arrazoi batzuegatik ere.

Ateratzen den zenbatekoa ez da finalista; horrek esan nahi du ez dela helburu jakin batera bideratu behar, baizik eta sor daitezkeen premien osotasuna finantzatzeko balio duela.

Beraz, toki-entitateek ez dute esleitutako zen-batekoa erabili diren zortzi zerbitzuetara (besteak beste, egoitzetara) bideratzeko betebeharririk, banaketa-irizpide gisa. Udalaren borondatearen arabera izanen da finantzaketa gehigarriaren xedea zehaztea; jakina, xedeen artean udal egoi-tzak egon daitezke, baina banaketa-aldagai horrengatik kobratutako kopuruaren mende egon gabe.

Tokiko ekonomia sustatzeko 13,5 milioi euroko funtsari dagokionez, funts horren helburua da uda-len inbertsioak sustatzea xede jakin batzuetan; besteak beste, zuzkidurak egokitzea. Udal-egoi-tzak ere inbertsio horien hartzaileak izan litezke, baina erabilera hori udalaren borondatearen mende egonen da berriz ere.

Hortaz, Departamentuari ez dagokio kontrola-tzea zenbat bideratu den azkenean adinekoen-tzako egoitzetara —finalista ez den funts bat baita, formula bat aplikatuzetik heldu dena, aldagai ba-tzuen banaketa-indizeen arabera, eta egoitzak aldagai horietako bat dira—, baina horrek ez du esan nahi formulari sartutako zerbitzuetara soilik bideratu behar direnik, ezta zenbateko hori bera bideratu behar denik ere. Hori dela eta, udalek ere ez dute zertan informazio hori eman.

Udalak dira, beren udal autonomiaren barruan, beren udalerrien beharrak hobekien ezagutzen dituztenak eta jasotako zenbatekoak nola banatu hobekien dakitenak, eta horrelaxe ulertzen du departamentu honek.

Gainera, gogorazi behar da finalista ez den funtsaren izaera hori toki entitateekin adostu zela Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bidez, eta, ondoren, Nafarroako Parlamentuan onetsi zela.

Hirugarren gaiari dagokionez, jakinarazi behar da Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzen-dari kudeatzaileari 10,5 milioi euroko funtsaren osaeraren berri eman diola, udal aurrekontuetan gertatutako inpaktu arrunta arintzeko, bai eta infor-mazioa banatzeko erabilitako formularen berri ere; alabaina, informazio hori ez da ofizialki helarazi, ez baitago udal egoitzetarako diru-kopururik. Izan badagoena toki entitateentzako banaketa bat da, eskuratutako dirua pandemiaren inpaktuagatik egokiena iruditzen zaien helburura bidera deza-ten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamen-tuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatu-takoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko azaroaren 19an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

## **Galdera, Estatuak autonomia-erkidegoetako gizarte-zerbitzuetarako duen 300 milioiko aparteko funtsari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Estatuak autonomia-erkidegoetako gizarte-zerbitzuetarako duen 300 milioiko aparteko funtsari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 30eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Estatuak autonomia-erkidegoetako gizarte-zerbitzuetarako duen 300 milioiko aparteko funtsari buruz (10-20/PES-00270). Hona

Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Parlamentariak bere galderan aipatzen duen bezala, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan xedatutakoa aplikatuz, Estatuak 300 milioiko aparteko funtsa ezarri zuen autonomia-erkidegoetako gizarte-zerbitzuetarako. Zenbateko horren % 1,5, 4,5 milioi euro, Nafarroara bideratu dira.

1. Noiz jaso ziren funts horiek Estatutik?

2020ko apirilaren 24an.

2. 4,5 milioi horietatik, zenbat bideratu da Nafarroako egoitzetara? Funts horiek zein kontzeptuetarako erabili diren xehakatzeko eskatzen dugu.

Nafarroako egoitzetarako zenbatekoa 1.998.000 eurokoa da.

<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
COVID-19a. Itundutako plazen kostua egokitzea absentismoagatik	1.100.000 euro
COVID-19a. Egoitza-zentro soziosanitarioetarako langile gehiago jartzea	600.000 euro
COVID-19a. Behin-behineko bitarteko baliabideak sortzea	298.000 euro

3. Noiz ordaindu zaie Nafarroako egoitzei Nafarroako egoitzetara bideratzekoa zen funts horren zenbatekoa? Ordaintzeko ebazpenaren edo ebazpenen kopia eskatzen dugu.

Ordainketa martxotik egiten joan da, etenik gabe (egoitzek gastua justifikatu ondoren).

Departamentu honetan jasota daude egindako ordainketa-ebazpen guztiak, eta ez dago eragozpenik haiek zuri bidaltzeko, baldin eta dokumentazio-eskaera hori arauzko bideen bidez egiten bada.

4. Eskatu al du Estatuak justifikatzeko aparteko funtsetik jasotako 4,5 milioi euroak zertarako erabili diren?

Justifikazio-errekerimenduaren eta, hala bada-gokio, egindako justifikazioaren kopia eskatzen da.

Funts horien deialdian adierazten da nola egiten den proiektuen bilakaeraren eta gauza-

tzearren ebaluazioa: "Hiruhileko txostenek ekainaren 30eko, irailaren 30eko eta abenduaren 31ko egoerari buruzko informazioa jasoko dute, eta horiek aurkezteko gehieneko data uztailaren 31, urriaren 31 eta urtarrilaren 31 izanen da, hurrenez hurren. Hiruhileko txostenetan bildutako informazioa metagarria da, eta, beraz, bigarren txostenean, funtsaren kudeaketa/exekuzioaren egoera irailaren 30ean nola dagoen azaltzen duten datuak irauliko dira eta, horrenbestez, hirugarren hiruhilekoko txostenean jasotako aldagaien datuak bat etorriko dira ondoren Ezohiko Gizarte Funtsaren Betearazpenaren Azken Memoriarako Fitxara helarazten diren datuekin."

Adierazitako epeak betez, orain arte bi txosten egin dira (uztailaren 31n eta urriaren 31n) Nafarroako proiektu bakoitzeko (5 proiektu).

Berezko errekerimendurik ez dago. Ministerioak mezu elektronikoko bat baino ez du bidaltzen,

eta horren bidez on line formulario ofizialaren esteka eransten da, betetzeko.

Departamentu honetan jasota daude egindako justifikazio guztiak, eta ez dago eragozpenik haiek zuri bidaltzeko, baldin eta dokumentazio-eskaera hori arauzko bideen bidez egiten bada.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 20an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko gastuak arintzeko egoitzak finantzatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko gastuak arintzeko egoitzak finantzatzeari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 30eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko gastuak arintzeko egoitzei emandako finantzaketari buruz (10-20/PES-00271). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

1. - Galdera hau egin Eskubide Sozialetako Departamentuak diru-kopururik bideratu al du egoitzetara COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko gastuak arintzeko?

Bai.

2. - Hala baldin bada, zenbat?

2020ko azaroaren 5ean, 2.518.117,20 euro (bitarteko baliabideen gastuak kontuan hartu gabe).

3. - Zenbateko horretatik, zenbat etorri da Estatuaren ezohiko funtsetik eta zenbat Departamentuaren funts propioetatik?

1.100.000 euro Estatuaren ezohiko funtsetik eta gainerakoa Departamentutik.

4. - Zenbatekoren bat ordaindu bada, ordaintzeko ebazpenaren edo ebazpenen data eta horien kopia.

Ordainketa martxotik egiten joan da, etenik gabe (egoitzek gastua justifikatu ondoren).

Departamentu honetan jasota daude egindako ordainketa-ebazpen guztiak, eta ez dago eragozpenik haiek zuri bidaltzeko, baldin eta dokumentazio-eskaera hori arauzko bideen bidez egiten bada.

5.- Zenbatekoren bat ordaindu bada, zein izan dira banaketa-irizpideak?

### **COVID-AREN GASTUAK ORDAINTZEKO IRIZPIDEAK**

1. Kontratuko kalte-ordainketak: guztizko etetea (eguneko zentroak):

Itundutako plazen ehunekoaren proportzioan eman dira kalte-ordainak. Apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legearen 2.4 artikulua ezartzen du honako kontzeptu hauengatik ordaindu ahal izanen direla kalte-ordainak:

1) Kontratatik etete-aldian kontratuaren exekuzio arruntari atxikitako langileei benetan ordaindutako soldata-gastuak. Ondorio horietarako, uler-tu behar da soldata-gastuetan sartzen direla Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazio guztiak.

2) Behin betiko bermea mantentzeagatik gastuak, kontratuaren etete-aldiari dagozkionak.

3) Makineriaren, instalazioen eta ekipamenduen alokairu gastuak edo mantentze-lanen kostuak, baldin eta kontratatik frogatzen badu baliabide horiek ezin izan direla erabili etendako kontratua betetzea ez den beste xede bazu-erako, eta kostu horien zenbatekoak ez badu

gaintzen makineria, instalazio eta ekipamenduak alokatzeko edo mantentzeko kontratuak suntsiaraztearen kostua.

4) Pleguan ezarrita dauden eta kontratistak kontratuaren xederako izenpetu dituen aseguru polizei dagozkien gastuak, baldin eta kontratua etetean indarrean badaude.

2. Desgaitasuna: Eguneko zentroko zerbitzua eta eguneko egonaldiak etetea.

Larrialdia dela eta, honako zentro hauetako kontratuak aldatu dira: Atalaya, Las Hayas, Oncinada, Valle de Roncal eta Infanta Elena eta Aspace. Honako honen arabera aldatu dira:

<<Administrazio-klausula partikularren agiria aldatzea, eranskin hau erantsita:

ERANSKINA: Eguneko zentroko zerbitzua eta eguneko egonaldiak etetea.

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak itundutako plazen eguneko egonaldirako edo eguneko zentrorako erreserbamodulua ordainduko du, baldin eta erakundeak konpromisoa hartzen badu eguneko zentroko edo eguneko egonaldietako langileak egoitzaren zerbitzura jartzeko, honako kasu hauetan:

- Arau batek eguneko egonaldien edo eguneko zentroaren zerbitzua etetera behartzen badu, edo

- Debekua kendu ondoren, PAGNAk uste badu zentro batek ez dituela betetzen zerbitzu hori behar besteko bermekin emateko baldintzak.»

3. Adinekoak: Eguneko egonaldiak eta ezohiko gastuak etetea. Esparru-akordioa.

Esparru-akordioa honela aldatu da:

Lehena.- Eguneko egonaldiak eta autonomia sustatzeko zerbitzuak kudeatzeko Esparru-akordioa arautzen duen agiria aldatzea, bertan ERANSKIN hauek sartuz:

IV. ERANSKINA: EGUNEKO EGONALDIEN ZERBITZUA ETETEA

PAGNAk zentroari eguneko egonaldietako moduluaren % 100 ordainduko dio, baldin eta erakundeak konpromisoa hartzen badu eguneko egonaldietako langileak egoitzaren zerbitzura jartzeko, honako kasu hauetan:

- Arau batek eguneko egonaldien zerbitzua etetera behartzen badu, edo

- debekua aldatu ondoren, PAGNAk uste badu zentro batek ez dituela betetzen zerbitzu hori behar besteko bermekin emateko baldintzak, etxean bizi diren pertsonak etxetik egunero sar-

tzeak eta irteteak zentroetan bizi direnentzat dakarten arriskua dela eta.

V. ERANSKINA. ITUNDUTAKO TOKIEN KOSTUA DOITZEA, COVID-19A DELA ETA

COVID-19aren ondorio kaltegarriak arintzeko beharrezkoak diren ezohiko gastuak egoitzazentroetan eragindako finantza-desorekari erantzuteko, itundutako tokien kostua % 50era arteko ehunekoan doituko da, betiere aurrekontu-esleipena badago, honako kontzeptu hauen kostua barne hartuta:

- 2020-03-01etik 2020-05-31ra bitartean desokupazioagatik diru-sarrerak murriztu izana.

- Langileen bajeen kostuak (COVID-19agatik eta langileen errefortzuengatik) eragindako kostu pertsonalaren gehikuntza.

- COVID-19ari aurrea hartzeko eta aurre egiteko beharrezkoak diren aparteko beste gastu batzuk (NBE, maskarak, babes-pantailak, desinfektatzaileak, garbiketeta, etab.).

4. Adinekoak eta NMLa: EPSZk eta eguneko zentroak (ospitaletakoak) etetea.

EPSZei eta eguneko zentroi egotzitako langileen kostuak (aldi batean etenda egon diren zerbitzuak) itundutako tokien proportzioan ordaindu dira, Aita Mennin ABEEEra ez jotzeagatik eta gainerako baliabideetan laguntza emateagatik.

6. - Ba al dute zenbateko horiek zerikusirik kontseilariak maiatzaren 8an egoitzetarako iragarritako 2,3 milioiekin? Horrela ez bada, desadostasunak zergatik gertatzen diren azaltzea nahi dugu.

Bai, 2.300.000 euroko kopurua egoitzazentroi ordainduko zaien zati bat dira, guztizko zenbatekoa jada 2.300.000 euro horiek baino handiagoa baita. Orain arte 2.518.117,20 euro ordaindu zaizkie zentroi.

7. - Zertarako bidali zion mezu bat idazkari nagusi teknikoak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari 2020ko maiatzaren 14an, osasun-krisiak eta/edo hari aurre egiteko neurriek eragindako zerbitzu-aldaketak edo -ordainketak kudeatzeko toki entitateei eskatuko zitzaizkien datuen berri emateko? Mezu elektroniko horrek ekin-tzaren bat ekarri al du berekin?

Idazkaritza Tekniko Nagusiak mezu bat bidali zuen, zeren eta NUKFek informazioa eskatu baitzuen bideokonferentziaz egindako bilera batean.

Informazioak balio du tokiko titulartasuna duten egoitzetarako, baldin eta aldaketa eta kalte-ordainen arloan COVID-19a dela-eta onartutako ezohiko neurrien onuradun izan badaitezke; izan ere,

aldaketa eta kalte-ordain horiek lehentxeago azalduak genizkien gizarte entitateei bilera batean, hain zuzen haiekin bildu baikinaren pandemiaren eraginari buruz zer iritzi zuten jakiteko eta inpak-tua gutxitzeko onetsitako foru lege-dekretuei eta foru legeei buruzko zalantzak argitzeko.

Pertsona horientzat eta egoitzen gainerako titularrentzat zehaztu ziren Nafarroako Autonomia-ren eta Pertsonen Garapenaren Agentziak kontra-tuak aldatzeko edo gauzatzeko ezintasunagatik kalte-ordainak emateko ezarritako irizpideak, bai

eta aldaketa eta kalte-ordain horiek onesteko igor-tzen zituzten eskaerak eta informazioak ere.

Ekintzak bideratzeari dagokionez, konpen-tsazio ekonomikoetarako kalkuluak egoitzei eska-tu zaizkien datuekin egin dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez..

Iruñean, 2020ko azaroaren 20an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Car-men Maeztu Villafranca

## **Galdera, hondakinen arloko PIMA planetako estatu-funtsen banaketari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku-luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera-ren erantzuna, Foru Diputazioak emana, hondaki-nen arloko PIMA planetako estatu-funtsen bana-kerari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 30eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxi-kitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du hondakinen arloko PIMA planetako estatu-funtsen banaketari buruz (10-20-PES-00272). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

– Galdera: Landa Garapeneko eta Ingurume-neko Departamentuak edo haren bidez hondaki-nen arloan eskumena duten toki entitateek Estatu-ko Gobernuari proiekturen bat aurkeztu al diote hondakinak gaika biltzeko, etxeko eta komunitate-ko konpostajerako, konpostaje-instalazioetarako, sukaldako olio erabiliaren birziklatzerako edo bio-gaserako?

– Erantzuna: Biohondakinak bereizita biltzeko 4 proiektu, etxeko eta komunitateko konpostaje-proiektu bat eta konpostaje-instalazioen 2 proiektu

aurkeztu ziren. Ez zen aurkeztu erabilitako sukaldaritza birziklatzeari buruzko proiekturik, ez eta biogas-proiekturik ere.

– Galdera: Hondakinen arloan eskudun diren toki entitateetatik zeinek eskatu dio Gobernuari proiekturen bat hondakinietarako PIMAK finantza-tzen dituen gaiekin loturik?

– Erantzuna: Erriberako, Bortzirietako, Jurra-mendiko eta Malerrekako mankomunitateek aur-keztu zituzten bio-hondakinak bereizita biltzeko proiektuak. Etxeko eta komunitateko konpostaje-proiektua Bidausiko Hiri-hondakin Solidoen Man-komunitateak aurkeztu zuen; konpostaje-instala-zioen 2 proiektuak, berriz, Iratiko Hiri-hondakin Solidoen Mankomunitateak aurkeztu zituen.

– Galdera: Zergatik ez du jasoko Nafarroak jasoko inolako zenbatekorik Ingurumena Sustat-zeko Plana-Hondakinei egotzitako funtsen bana-keratik?

Ministerioak 4.828,56 euro eman zizkion Bidausi Mankomunitateko komunitateko konpos-tajea zabaltzeko proiektuari. Aurkeztutako gaine-rako proiektuek dirulaguntzarik ez jasotzeko arra-zioak honako hauek dira:

Hondakin organikoetarako nasa eraikitzeko proiektua, Iratiko Mankomunitateak aurkeztuta-koa, deialdiaren oinarrietan ezarritako gutxieneko edukia ez sartzeagatik. Honako hauek falta dira:

kronograma, tratamenduaren deskribapena, obraren deskribapen-memoria eta instalazioaren planoak.

Konpostajerako Estalkia egiteko proiektua, Iratiko Mankomunitateak aurkeztutakoa, deialdiaren oinarrietan ezarritako gutxieneko edukia ez sarzteagatik. Honako hauek falta dira: kronograma, tratamenduaren deskribapena, obraren deskribapen-memoria eta instalazioaren planoak.

Erriberako Mankomunitateko Gai Organikoak Selektiboki Biltzeko Proiektua ez da 1. lehentasuneko; hori dela eta, ez da finantzatu, ez baitu nahikoa kreditu lehentasun hori finantzatzeko.

Bortzirietako Mankomunitatean bio-hondakinen bilketa bereizia ezartzeko proiektua, tratamendu biologikorako, ez delako bidezkoa Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak (MITERD) aurreko deialdietan finantzatutako beste ezarpen-proiektu baten lurralde-eremu bere-

an ezartzeko proiektu bat finantzatzea, udalerrri honetan bio-hondakinen bilketa bereizia ezarrita dagoela ulertzen baita. 2018an, MITERDek NAV\_RSB\_006 proiektua finantzatu zuen. Proiektu horrek jasotzen zuen Bortzirietako Mankomunitateko 5 udalerrietan bio-hondakinen bilketa bereizia ezartzea.

Jurramendiko Mankomunitateko materia organikoaren gaikako bilketa ezartzeko proiektuak 2. lehentasuna du. 2. lehentasuneko proiektuak ez dira finantzatu, lehentasun hori finantzatzeko kreditu nahikorik ez dutelako.

Malerrekako Mankomunitatean materia organikoaren gaikako bilketa ezartzeko proiektuak 3. lehentasuna du. 3. lehentasuneko proiektuak ez dira finantzatu, lehentasun hori finantzatzeko kreditu nahikorik ez dutelako.

Hauxe da bio-hondakinak bereizita biltzeko proiektua finantzatzeko lehentasunen hurrenkera:

BIO-HONDAKINAK BEREIZITA BILTZEKO PROIEKTUA FINANTZATZEKO LEHENTASUNEN HURRENKERA (*)	
PROIEKTU-MOTAK	LEHENTASUNA
Bilketa bereiziko bio-hondakinen tratamendu biologikora soilik bideratutako instalazioetarako bio-hondakinen bilketa bereizia ezartzeko proiektuak (**).	1
Tratamendu mekaniko biologikoko instalazioetara bideratutako bio-hondakinak bereizita biltzeko proiektuak (**), non bilketa bereiziko bio-hondakinen tratamendu eskusiborako linea erabat independentea dagoen.	2
Bilketa bereiziko bio-hondakinen tratamendu biologikora soilik bideratutako instalazioetarako bio-hondakinen bilketa bereizia biltzeko proiektuak zabaltzea (**).	3
Tratamendu mekaniko biologikoko instalazioetara bideratutako bio-hondakinak bereizita biltzeko proiektuak zabaltzea (**), non bilketa bereiziko bio-hondakinen tratamendu eskusiborako linea erabat independentea dagoen.	4
Bilketa bereiziko bio-hondakinen tratamendu biologikora soilik bideratutako instalazioetara edo tratamendu mekaniko biologikoko instalazioetara —non bilketa bereiziko bio-hondakinen tratamendu eskusiborako linea erabat independentea dagoen— bideratutako bio-hondakinen bilketa bereiziko proiektuak (****).	5

– Galdera: Zilegizat jotzen al duzu Nafarroa 5,87 milioi horien banaketatik baztertu izana?

Ministerioak Nafarroako Mankomunitateek aurkeztutako proiektuen balorazioa egin zuen, deialdiaren oinarrien eta bertan ezarritako lehentasunen arabera.

– Galdera: Nafarroako Gobernuak ontzat eman al zuen funts horien banaketari, Ingurumeneko Konferentzia Sektorialean, Gobernuaren eta autonomia-erkidegoen arteko ingurumen arloko

lankidetzarako organoan, joan den irailaren 21eko bileran?

Nafarroako Gobernuak ontzat eman zuen funts horien banaketa, banaketa hori bat datorrelako deialdiaren oinarriekin eta bertan ezarritako lehentasunekin.

Iruñean, 2020ko azaroaren 26an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## **Galdera, 2017-2019 aldia dela-eta Tracasa Instrumental SL enpresari egindako fiskalizazio-txostenean adierazitako justifikatu gabeko orduen buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2017-2019 aldia dela-eta Tracasa Instrumental SL enpresari egindako fiskalizazio-txostenean adierazitako justifikatu gabeko orduen buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 6ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioko kide Ángel Ansa EcheGARAY jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2017-2019 aldia dela-eta Tracasa Instrumental SL enpresari egindako fiskalizazio-txostenean adierazitako justifikatu gabeko orduen buruz (10-20/PES-00273). Hona Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta

Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horri buruz jakinarazten diona:

Zure galderan aipatzen duzun ordu kopurua — 10.612 ordu— Kontuen Ganberak ezarri zuen auditoria prozesuan, bere kalkuluetan oinarrituta. Gaur egun, Tracasan eskuragarri dagoen dokumentu bakarra honako esteka honetan eskuragarri dagoen auditoretza-txostena da:

<https://camaradecomptos.navarra.es/sites/default/files/assets/files/informes/KontuenTxostena2006.pdf>

Beraz, Kontuen Ganberari egokituko litzaioke kopuru horretara nola iritsi zen eta aipatzen dituen proiektuei buruzko xehetasunei buruz erantzutea.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko azaroaren 25ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

## **Galdera, Agoizko Siemens-Gamesaren Kanpoko Birkokatze Plana dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egiten duen jarraipenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Agoizko Siemens-Gamesaren Kanpoko Birkokatze Plana dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egiten duen jarraipenari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 6ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (10-20/PES -00274) Agoizko Siemens-Gamesaren Kanpoko Birkokatze Plana dela-eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egiten duen jarraipenari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

2020ko abuztuaren 10ean, Siemens-Gamesa enpresak kaleratze kolektiboko espedienteko kontsulta-aldiaren amaieraren jakinarazpena aurkeztu zuen, Agoizko lantokiko plantillako 237 langileen kontratuak deuseztatzeko 2020-08-25etik 2020-09-30era bitarteko aldian.

Lan Zerbitzuak jakinarazpen bat bidali zien abuztuaren 12an, non adierazten baitzen, Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera, enpresak birkokatze-plan bat eskaini behar diela kaltetutako langileei, behar bezala baimendutako enpresen bidez. Era berean, jakinarazi zien Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko (aurrerantzean, NL-NEZ) Lan Aktibazioko eta Lurralde Koordinazioko Zerbitzua harremanetan jarriko zela Siemens-Gamesarekin eta kontratatutako birkokatze-enpresarekin, legez aurreikusitako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko.

Enpresak Kanpoko Birkokatze Plana (aurrerantzean, KBP) igorri zion NL-NEZri. Plan horrek konpromiso nagusi hauek hartzen ditu barne:

- 12 hilabeteko iraupena zuen plan bat; 15 hilabetekoa 50 urtetik gorako langileentzat.

- Langile aktiboen % 100 birkokatze konpromisoa.

- Arcadio M<sup>a</sup> Larraonako bulegoan aurrez aurreko arreta emateko konpromisoa.

NL-NEZk KBPa aztertu zuen, eta haren jarraipenerako metodologia eta kronograma ezarri zituen.

Abuztuaren 31n, NL-NEZk bilera bat egin zuen Planaren Entitate Arduradunarekin (PEA), honako helburu hauekin:

1. KBPa garatzeko informazioa partekatzea.
2. KBParen jarraipen-metodologia bat ezaritzea.
3. Kronograma bat adostea.
4. Plantako langileei, entitatearen bitartez, NL-NEZren zerbitzuak eskaintzea, KBPeko neurrien osagarri.

Irailaren 7an PEArri informazio gehiago eskatu zitzaion ukitutako langileei buruz, haien prestakuntzari, bizitokiari, adinari eta abarrei zegokienez, datu horiek balizko laneratze-prozesuetan kontuan hartu ahal izateko.

Urriaren 6an NL-NEZren eta PEAREN arteko bigarren koordinazio-bilera bat egin zen. PEArri informazioa bidali zitzaion KBPa garatzeko kome-ni diren NL-NEZko prestakuntza-zerbitzuei buruzko informazioa.

Hurrengo jarraipen-bilera urtarrilaren lehen hamabostaldian egitea aurreikusten da, nahiz eta lehenago beste bat egin zitekeen PEAK hala eskatzen badu NL-NEZk emandako zerbitzuei buruzko informazio gehiago lortzeko, egoerak aldatzen badira edo bi erakundeen arteko lankidetzak ezartzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca